

# ZARR

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

208n. zenbakia  
ekainilla/bagilla 1996



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



**EUSKALDUNEN ETXE ZARRAK  
ETA  
EUSKALDUN BARRIAK**

## INDIA' TIK

Nire lagun Pablo Gil napar misiolariak eskutitz bat idatzi deust India'tik ango albiste interesgarri batzuk "ZER" aldizkariaren irakurleentzat bialduz.

"India'k daukan arazorik larriena au da: urtero-urtero ango bizilagunak 18 milioi geiago direala... Eta ainbeste langile barrientzat zelan eta nondik lana aurkitu?

India'n 400 milioi analfabeto dagoz, emakumeak batez ere. Orregaitik guk misiolariok al dogun lurralde guztietan eskolak sortzen ditugu mutil eta neskatxentzat, irakurten eta idazten ikasi eta gero, euren etxeko bizitzan aurrera egiten ikasi daien.

Bigarren arazoa beste au da: etxeko alabak 14-15 urtera eltzen direanean ezkondu egiten direala, edo obeto esateko gurasoak euren alabak ezkondu egiten dabezala. Adin orretara bein eldu ezkerro neskatxak ezkontzako loturaz euren senarraren etxean ondoen dagozala, uste dabelako. Eta beste aldetik lenbailen ezkondu ezkerro obe, gero neskaraz gelditu ez daitez.

Len India'ko oitura zar bat zan, senara ilten zanean emaztea ere bere ezkonlagunaz batera erreta iltea. Emazte alarguna ezkon barritako jantzi ederrakaz lorez apaindurik, burditxo baten ganean bere senarra ilda egoan lekura eroaten eben. An egoan sumeta biztuta, eta etxekoak makilakin eskuetan iges egin ez egian sugarretara botaten eben alargun errukarria, guztiz erre arte. Oitura gaizto au inglesak kendu eben...

Guk emen jende txiroenakaz lan egiten dogu. Eda-terko ura, garbitzeko eta lurrak ureztatzeko ugari euki daien osinak edo pozuak zulatzen ditugu. Ura lurpean 200 metroko sakonean ugari aurkitzen da. Joan dan urtean pozu bi zulatu genduzan. Osin bakotxeko uraz 30 edo 40 ektarea ureztatu daitekez, 50 familia bizi-

teko beste. Len urtean uzta-kosetxa bat batzen zan bitartean, orain bi edo iru biltzen dira.

Ramosana izeneko errian urtegi-pantano bat ere egin dogu. Lurralde onetan udan euri andiak egiten ditu, eta ur guztia ibaietatik itsasora alperrik joaten da. Guk ueska edo presa bat egin dogu erriko milla eta bosteun lagunak naiko ur euki daien. Orain emengo etxe-abereak -kamellu, fugalgo eta beiak- ez dira egarriz ilgo.

India'n guk egiten dogun beste lan eder batek ere asko pozten gaitu: biziteko etxe barriak egitea. Emengo bizilekuak buztinez eta abarrez eginak dira, eta aizeak eta euriak gogor jotzen dabenean geienak eka-txak eroaten ditu. Guk 88 ladrilluzko etxe egin ditugu. Orain udan aizeak eta euriak jotzen dabenean ez da bildurrik dana ondatuko dabenik.

Guk lan egiten dogun misio lurraldeak 24 erri txiki osotzen ditu. Geienak ez dira kristauak, baina joaten garean leku guztietan oso ondo artzen gaituez. Ni moja misiolari batek lagunduta joaten naz erri one-tara eta gure gogoia au da: danai, zein erlijjinokoa dan begiratu barik, on egitea. Frutua Jaungoikoaren eskuetan izten dogu".

GOIKOETXEA'TAR IÑAKI

==

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'K ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratzeko erea. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 2.000 pezeta dirala idatzita. Txartel on sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colón de Larreategi, 14, 2º, eskoia. 48001 BILBAO.

Eskerrik asko urtero zintzo-zintzo ordaintzen dozuen guztioi.

# OBETU DAIGUN GURE EUSKERA (V)

## ASKO-GUTXI / AUNDI-TXIKI

Gaztelarazko mucho-poco itzak euskerara itzultzeko era bi daukaguz: asko-gutxi (gutxi), batetik, eta aundi-txiki, bestetik. Noiz asko-gutxi eta noiz aundi-txiki erabili? Auxe azterkizun eta jakinkizun lantxo onetan.

Ez dot gramatikazko araurik ekarterik gura. Gramatika dala eta jakintsu ez diranentzat be ulergarri izatea nai dot. Izpide xeea eta erreza erabilten aaleginduko naz, orrexegaitik.

Zenbatu (bat, bi, iru... amar... ogei...) egiten diran gauzak asko-gutxi bikotea erabilliko da. Adibidez "Koldok urte asko daukaz", edo, "urte gutxi daukaz" (edo "dauko" singularrean, bietara dago ondo euskeraz) "Erri onetan etxe asko edo gutxi dagoz (dago)". "Batzar onetara gizon asko edo gutxi etorri dira" (etorri da). "Liburu gutxi irakurri dodaz euskeraz, edo asko irakurri dodaz (irakurri dot)". Eta abar, eta abar.

Baiña beste gauza asko eta asko daukaguz (daukagu) zenbatu (bat, bi, iru...) egiten ez diranak. Ikusi: sua, kea, lokatza, indarra, gosea, otza, beroa, bildurra, euria, edurra, eta beste asko. Ez dogu esaten "indar bat", "otz bi", "iru euri", "lau bildur", eta abar.

Ondorenez, auxe: zenbatu (bat, bi, iru...) egiten ez diran gauzak askotu edo gutxitu egiteko euskera jatorrez aundi-txiki bikotea erabilli oi izan da gizaldietan zear. Agerbidez: "Bero aundia daukagu gaur" (ez "bero asko..."), "Iñakik indar aundia dauko" (ez "indar asko..."), "erreka onek ur aundia daroa" (ez "ur asko..."), "egarri aundia daukat" (ez "egarri asko...", au euskera gaiztoa da). Eta abar.

Ona, baiña, zer jazoten jakun. Gaztelaraz era biotako itzak askotu eta gutxitu egiteko mucho-poco bikotea erabilten da: "muchos años". "muchas personas", "mucha edad", "mucha fuerza", "poca gente", eta abar. Eta naasteen darabilgun gaztelera au indartsu-indartsu daukagun ezker, eta gure euskera au lotsor-lotsor, ikarati-ikarati eta aul-aul, gaztelera nausitu, gaillurte eta nabarmendu egiten jako gure berbakuntzari eta beraren esamoldeak arreraz, beste arlo askotan jazoten dan lez. Eta onan, "gizon onek indar aundia dauko" euskera jatorrez esan bearrean, "indar asko dauko" sasi-euskeraz esan eragin. "erreka onek ur aundia daroa" esakun

zuzenaren orde, "erreka onek ur asko daroa" esaldi okerra erabili, eta onango beste okerkeri asko eta asko.

Gogoan al dozu urtarrilleko zenbakian agertu neuntsun iragarkizuna? (ZER, urtarrillak 1996, 2 on-i.) "En esta habitación hay mucha luz o poca luz" esaldia zelan euskeratu askok ez dakiela esan neuntsunean? Nik itandu dautsendan geienak onan erantzun dauste: "Gela onetan argi asko edo argi gutxi dago". Eta orduan beste itaun au egin dautset: Eta "en esta habitación hay muchas luces o pocas luces" (número) zelan euskeratuko zenduke? Eta gorri-gorri geratu jataz zelan erantzun ez dakiela. "Gela onetan argi asko dago" esakunak ez dau esan gura: "En esta habitación hay mucha luz" (intensidad de luz), "en esta habitación hay muchas luces" baiño (número de luces). Eta esaldi bat txarto euskeratu ezker, urringoa zelan zuzen itzuli?

Irakaskuntza eta egikuntza bateratuz, ona emen agerbide zerrenda bat.

|                                   | OKER                            | ZUZEN  |
|-----------------------------------|---------------------------------|--|
| Aquí hay mucha luz                | Emen argi asko dago             | Emen argi aundia dago  |
| Aquí hay poca luz                 | Emen argi gutxi dago            | Emen argi txikia dago  |
| Aquí hay muchas luces             |                                 | Emen argi asko dago  |
| Aquí hay pocas luces              |                                 | Emen argi gutxi dago   |
| El río lleva mucha agua           | Errekeak ur asko daroa          | Errekeak ur aundia daroa                                     |
| Koldo tiene mucha fuerza          | Koldok indar asko dauko         | Koldok indar aundia dauko                                    |
| Hace mucho frío                   | Otz asko egiten dau             | Otz aundia egiten dau  |
| Hace poco frío                    | Otz gutxi egiten dau            | Otz txiki egiten dau   |
| Hoy no hace mucho calor           | Gaur ez dau bero askorik egiten | Gaur ez dau bero aundirik egiten                             |
| Iñaki tiene muchos años           |                                 | Iñakik urte asko daukaz (dauko)                              |
| Iñaki tiene mucha edad            | Iñakik edade asko dauko         | Iñakik edade aundia dauko                                    |
| Aquí hay mucho humo               | Emen ke asko dago               | Emen ke aundia dago  |
| Tengo mucha hambre                | Gose asko daukat                | Gose aundia daukat   |
| Tengo mucho sueño                 | Logura asko daukat              | Logura aundia daukat   |
| Tengo mucho miedo                 | Bildur asko daukat              | Bildur aundia daukat   |
| Ha nevado mucho                   | Edur asko egin dau              | Edur aundia egin dau   |
| Ha llovido mucho                  | Euri asko egin dau              | Euri aundiak egin dauz                                       |
| Anda mucho viento                 | Aizc asko dabil                 | Aize aundia dabil  |
| Salió mucho fuego                 | Su asko sortu zan               | Su aundia sortu zan  |
| Se ha reído mucho                 | Barre asko egin dau             | Barre aundiak egin dauz (Baila: barre ta Narre egin dau)     |
| Tengo mucho trabajo que hacer     | Lan asko daukat egiteko         | Lan aundia daukat egiteko (Baila: lan-da-lan egin hear dot). |
| Ha habido muchas riadas           |                                 | Uriola aundiak izan dira                                     |
| Ha llevado mucha velocidad        | Abiada asko croan dau           | Abiada aundia croan dau                                      |
| He sudado mucho                   | Izerdi asko emon dot            | Izerdi aundia emon dot                                       |
| En esta casa hay mucha necesidad  | Etxe onetan hearrizan asko dago | Etxeonetan hearrizan aundia dago                             |
| Tengo muchas ganas de ir          | Joateko gogo asko daukat        | Joateko gogo aundia daukat                                   |
| Este libro me ha hecho mucho bien | Liburu onek on asko egin daust  | Liburu onek on aundia egin daust                             |
| Me has hecho mucho favor          | Mese asko egin daustazu         | Mesede aundia egin daustazu                                  |
| Eta abar. eta abar.               |                                 |  |

AGIRREGABIRIA

## BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

---

# ONDARROA EUSKALDUNA

---

### ZUBIKARI TAR AUGUSTIN

Gaur wire artean dogu Zuhikarai tar Augustin, ondarrutar idazle ta euska/tzale ospetsu, trebe, jakintsu, ta neke\_ĩña.

Idazle erriko a izatekotan, be-a dogu gorenetakoa hat. Badau, haiña, here izten damn herte zer hat, eta auxe alegia: ulerterra:a dala. Au e\_ da auntzaren gaherdiko estula, ainhat ida:le baldar ta ulertezin nonai agertzen danean. N k neuk, here lanak irakurten dodazanean, hade r U-at itsas-aize garhi ta gozoak gure rakurmena kctm7tzn dauskuala.

Augustiñ en euskeraz idatziko lane n aipamena egitea, ez da errata, lihuru mardo bat bear izango gendukelako. Augaitik ha, uko egiten dausat azalpen luze-luzea izango litzake-nari.

Ent\_un egiozue ha, "Ondarroa Euskalduna" here gaurko gait' izango dana.

\* \* \*

Azken itzaldi-egun onetan, agirian eskerrak emon hear dautsadaz, eskolapiotar ikastet.ve oneri, oreen adeitsu aste onetan aneto eder an gu'e aukerean ipiñiagaitik.

### Zubiri tar Iñaki k

Euskerazaleak" eraturtako itzaldia  
Bilbao'n (Eskolapioetan 1995'ko Azilla'ren 17'an)

Jaun-andreok:

Gure zarrak, gure antxiñakoak, arrantzaleak ziran. Arrantzaleak eta itxastarrak, aldi zarretako ogibidea aztertu ezkeror, orretara bereiztu geinkezalako.

Geienak, negutean, arrantzale. Udaldian, eguraldiak bare-tu eta egokitzean, itxastar.

Zegaitik bereizketa ori?

Ara. Gaur, oiturazko berbetan, arrantzako jardunetan nai merkataritzako agerbidetan, Ondarruko kaia, Ondarruko portua esaten da.

Eta antxiña, gaur baiño Ondarru gitxiago aitatzen zanean, Ondarroako portuak esan eta irakurten zan. Ondarruko kaiak.

Zelako portuak mollarik ez egoan aldi aretan?

Nire urteak baiño ogei geiago ez dira bear jakin eta kon-turatzeko, itxasoa ezelako eragozpen barik, orma barik, zabal zabal sartzen zala errian, gure parroki andiaren oiñak busti arte.

Eta urak be bideak eukiten dauzanez ondar arteko tartetan, edo itxas ondoko aitzetan, bai eta mendi beko eta ur egaleta-ko iatzetan, len esan doguna, Ondarruko portuak, tarte orrei-tan izaten ziran.

Portuaren edo itxas sarrerako arriskuen goraberan, nik odoleko oroitza daukat.

Nire antxiñako aurretikoak, ez ziran ondarrutarrak. Gipuz-koarrak ziran. Itziar eta Mendaro artekoak, Lastur ingurukoak.

1819 urtean jaio zan lenengo Zubikarai Ondarroan.

Aldi aretan txalopagintza, itxas ontzi-gintza ugari zan eta gure odolekoa basoetako egurretan ezaupide andiko zanez, orretara ekarri eben Ondarrura emengo astilleru bateko langi-lle.

Garai aretan eta geroago be, len askoren oitura izaten zan domeka eta jai goizetan kale-mariñelak edo mariñel kaletar-rak, ogibidez arrantzale ez ziranei ala deitzen eutsen, txalo-paren baten itxas ertzeko arrantzara urtetea.

Eta Ondarroara etorri zan lenengo Zubikarai'ren semea be 1839'ko Andra Mari Martiko egunez, beste iru lagunekaz batera, arrantzara joan zan eta eguerdirako errira sartzen eto-zala, emengo sarrera arriskutsuan apurtzen ziran olatuetako batek tirabira eragin eta laurak itto ziran.

Domingo Ozerin, Jose Ozerin, Juan Zelaia eta Jose Zubikarai izan ziran, au ogei urteduna, errira etorri zan lenengo Zubikarai'ren semea.

Eta esandako kaietan, ondarrutarrak euren ogibidean, euren irabazbide lanetan, txalupa batzuk eukezan itxasertza-ren egaletan eta asko urrundu barik, oitura eta sasoi bakoitze-ko arrantzan ibilteko. Ala neguan.

Eta udaroan, noiz nai Frantzia goi aldeko Bretaña arte joan al izateko, edo ta Kantabria eta Galizia arte ibilteko, beste erabideko txalopak eukezan, andi eta indartsuagoak, eta eure-kaz beste era bateko ogibidean, merkataritzan, batzutan txalo-pen jaube berberen mesedean, bestetan merkatarien garraio eta konturako osteretan.

Geienetan emendik meazkia, minerala eroaten eben erbes-tera. Eta urruneko portuetatik janari eta edariak ekarri edo eunkiak (telak) eta ez jakin kontrabanduko traturik erabilten ez ete eben be. Beintzat inkisiziño denboretan, salakuntzak egon ziran protestateen zabalkundeko paperak itxasoz sartzen zirala eta jakiña da emengo txalopak etxas aurrean agertu orduko, begiraleak euren zain egoten zirala, ekarren guztia arakatzeko.

Laburtzeko: Emengoak neguan itxas ertzeko arrantzan ibiltan ekien. Udan, egualdiak baretzen ziranean, nai eta itxas ertzetik urrundu barik ibili, urruneko portuetara joaten ziran nierkataritzan.

Ori garbi oartzen da lengo garaietako Arrantzale Kofra-dien arauetan eta ezagutzeii dirun ida7\_i; ba.ii:..tan. E~ ziran soil-soil arrantzalienen kofradiak deitzen. Batzutan bereiztu egi-ten zituen sardiñatoko arrantzaleak, baleetakuak eta merkata-riak be.

Eta itxastar merkatariaik lenago esan dodazan tokiak baiño urrunago be ibiltan ziran.

Sami irakurten da, denbora zarretako arrantzale eta itxas-tarren liburuak irakurtean, emendik urrun, esateko Mediterra-neo'ko merkataria andiak, beste batzuen artean Ondarroa'ko Romo eta beste ondarrutar batzuk be ba zirala.

Ain zuzen be Romo abizena irakurtean, iñoiz kezkatu izan nitzan zelan eta nundik agertu ete zan gure izen eta abizenen artean, Romo lako erdal izen bat.

Leon boussard'en L'Irrintzina liburuan au irakurten da: XV Barren gizaldian Mediterraneo'ko ibilleretan ezagutzen ziran txalopa armadore eta merkatarien artean, andien artean, Gipuzkoa'ko Juan Uguz, Deba'ko Juan Irrisabar, Bilboko Lope Susonaga, Martin Perez. eta Juan Araia zirala; bai eta Juan Otxoa, tolosarra, Martin Otxoa eta Rodrigo Romo Ondarroakuak, Juan Ferrando. Bermeotarra eta abar.

Romo abizenari buruz kezka euki ni ttula, esan dot. Baiña bein Isaak Lopez Mendizabal'en Catálogo de Apellidos Vascos irakurtean, ara nun billatzen dodan Romo abizena, euskaldun abizena dala,

Romo, diño berak, en Lekeitio y Bilbao. Pastizal (de oma=pasto, con R protética. Variante de Roma.

Eta Roma abizena begiratzean, au irakurri lei: Roma, en Oñate. en 1461. Variante de Oma=pastizal. Bai eta variante de Irama=helechal, de ira, aro, helecho y el subfijo ama.

Ikusten dozuenez, eta au askok salatzen Babe, Lopez Mendizabal euskaldun jatorra da, baña menditarra, edo mendizalea, edo ta euskal baso eta mendiak bere ikuspegia mugatu dautsena. Eta ez nua ezer kentzen Lopez Mendizabal'eri.

Berberak diño bere irizpideak ez dirala beti zuzen edo zeatzak izango. Sarri eldu izan zala berberak izen bat aztertu eta bertatik ataratako onclorenak, pozik eta nasai ez lagatea.

Berak ogeitalau milla euskal abizen ez bardin baño geiago aztertu zitula. Buenos Aires'ko Urrutizkiñen gidan, bakarrik bi milla baño euskal abizen ez bardin geiago el dagoz.

Orrela ez da gaitz, itxas aldean bizi gareanok, azalpen bazuekaz artega geratzea.

Esateko, Itxaso itz berbera be, mendi ezaugarrietara biurten dau. Ara berak idazten dauana: Itxaso = retamal (de isats-retama y el subfijo o. Variante de Isaso.

Beti esaten da etimologietan gaitz dala zeaztasunez gauzak argitzea, baña gure aurrean dogun itxasoak, egunero arnastuten dogun kresalak, ez ete ñban euki bere eragiñik itxas erztean eta arrantzale errietan, bere duintasuna zeaztuteko?

Itxuraz XV garren gizaldian, Genoba zan itxasontzirik geienentzat joan bearreko portua. Merkatarien kaia.

Martin Santxez bilbotarrak eraso bat euki eban Saboia'ko dukearen aldetik, Cerdeña'tik Napoles'eko erreñura igarotean, eta emen Juan Likona ondarrutarra agertzen da Jakobo Spatafora'k erabillan olio, ezti, gozaki eta narruz betetako txalupa bat inguratu eta baituten.

Simancas'eko Artxiboan agertzen da ori.

Simancas berbetan dago baita ondarrutar baten auzi-kontua. 1487 urtekoa da. An salatzen ebena Pedro Urresti onda

berak erabillan txalopea be kendu eutsen eta saldu. Baña andik tau urtetara bere burua garbitu al izan eban, auzia irabaziaz.

1477 urtean beste gertaera bat egon zan itxasoetan. Gipuzkoar eta bizkaitar txalupa batzuk Eskozia'ko itxasontzi batzuekin naste borrhastea euki eben itxasoan. Eskoziar txalopa baten kendu eutsezan erabillazan merkagai gurtiak, 4425 koroe diruren balioa erabillala esaten da.

Ondarrutarrak errira ekarri eben, nai ta eskoziarrak bertaraiño jarraitu. Alperrik izan zan Buren alegiña. Gertaera onetan Diego Aresmendi ondarrutarra agertzen da txalopako buru lez.

Ikusten dozuenez orañarte ondarrutar abizen jatorrak, euskal garbiak dira.

Garbi ikusten da 1500 aurretik gure erria, erri euskalduna izan zala.

Gizonak alboan itxi ta ikus daiguzan etxeak.

Ondarroa, 1500 urte aurretik, iru kaleko erri txiki bat zan.

Iru kaleak gaur be ezagutzen diran eran: Goiko kalea, nai eta gaur izen ofizialez Txomin Agirre deitu, beti be Goiko kalea. Kale Nagusia edo Kale andia, hietara ezagutu izan da eta Ipar kalea. Eta ortik bera Erribera edo ibarra kalea. Orreik kenduta, beste lurralderik geienak, Artibai egaleko ortu eta iatzak, edo ta itxas alderdiko ondartzak.

Eta aldi aretan etxe egurrezkoak ba ziran be, eta arrain gantz eta koipez beteta egozalako, sualdi larrietan bertan bera galtzeko arriskueta.

Ba egozan tartean torre batzuk eta arrizko etxeak.

Euretan bizi ziran Ondarroari itxura eta entzutea emoten eutsenak.

Ala Aboitz etxea. Ad vitam aut culpam, ikurdiko ezaugarri ebal.

Agar.— (Hon haec sine nomine) ikusdian.

Etxe onen eta abizen onen aztarrenik ez dago gaur.

Enciclopedia General Ilustrada del Pais Vasco, Auñamendi'n. irakurten danez, abizen onetakoak Ondarroan euki eben jatorrizko etxea. Jaime Kerexeta'k diño etxe au Frantziko Venaissem kondadutzatik etorria zala.

Lopez Mendizabal'en esanetan, euskal itxura emon nairik, Agar on Akar'en aldakuntza izan leike.

Ain zuzen be abizen au edo etxe au izan leike Ondarruko abizenen arteko ardi baltza, Auñamendi'ren esana egia ba da.

Beste etxeak:

Agirrekoa.— Gaur be etxe au ezaguna da.

Ateguen.— Agirrekoa berbera da, gizaldietan aldatua.

Aranzibia.— Guk Antxubixa. Eta onetan aitortu bear da Berriatuako lurretan, Ondarru eta Berriatu bitartean ikusten dogun done etxea ezaguna ba da be, Ondarruko kalean, Ipar kalean, euki ebela Aranzibiatarrak beste etxe bat.

Arostegi.

Barroeta.— Anton Trueba'ren esanetan, Ondarroan euki eban jatorriko etxea. Ezaguna da Markiñan be abizen onetako dorrea.

Etxeandia.— Gaur Erribera kalean ikusten dira, urte askotan eskutatuta egon izan diran etxe onetako leio eta agerbide zanak.

Goitiniz.— Dorrea izan zan. Gaur beste etxadien artean galdua.

Izen orretako baserri bat ba dago, baiña jakiña da tonea be egon zala, gaur Unanue Kontserbatorioa jaso dagon inguruan.

Illorokua.

Jauregikoa.— Kaleandian eleizarako bide egalean. Anizko etxe galanta, Goiko kale eta Kalandira here orma nausiak emoten dabela.

Likona.— Gaur be ezaguna da torre au, nai eta Likona abizena zearo galdu, lenengo abizentzat gure erri onetan. Liburu askotan Torrebarria de Likona irakurten da, gaurkoaren aurretik besteren baten adierazgarri.

Munitibar.— Anton Truba'ren esanetan, abizen onek Ondarroan euki eban here oiñetxea, jatorri-etxea.

## EUSKAL ASTEA

Olabarria.

Patrokua.— Etxe ezaguna, Errenderi auzoan.

Antxikoa.— Markiña'ko Antxia torrekoekin zer ikusia eukenak, odolez beintzat.

Ondan-un antxiñako paper zan ugaririk ez ba dago be, ba dago 1541 urteko etxe errotzeta eta an ikusten dira garbi etxe jaube eta biztanle askoren abizenak. Eta eurretan,

|                                       |                           |
|---------------------------------------|---------------------------|
| Aierdi                                | Imprubide                 |
| Apallua (onek be euki eban torretxea) | Iramategi<br>Irrarrazabal |
| Aranzibia                             | Kareaga                   |
| Arriola                               | Laka                      |
| Aulikiz                               | Lekoia                    |
| Artolazaga                            | Olabe                     |
| Asterrika                             | Orobio                    |
| Aransolo                              | Pertika                   |
| Aranaga                               | Portu                     |
| Belendiz                              | Sagarraga                 |
| Elantxo                               | Sustaeta                  |
| Gillestegi                            | Tellaetxeri               |
| Goitia                                | Unda                      |

Urkiola eta abar, agertzen dira, eta gauza bakana da an be erdal kutsuko abizenik ez aurkitzea.

Beste erririk geienetan lez, Trento'ko Eleiz Batzar Nagusiaren ondorengo erabagia zalako, Ondarroa'ko parroikiko eleiz liburuak, 1550 urtean asten dira.

Jaiotzetako liburu guztiak aztertu izan dodaz 1550 urtetik asi eta 1900 urte artekoak.

Gaur geienak, 1884 urte artekoak, Derio'ko artxiboan dagoz. Besteak parroikian.

Ondarroan 1900 urte arte bateatuak, au da, 1550 tik asita, lauren urtetan amairu milla bederatzireun eta ogei ta bost neska mutil izan ziran.

Euretatik 1550 tik 1600 urtera 859 lagun.

1601 tik 1700 urteara 1.611

1701 tik 1800 urtera 2.371

1801 tik 1900 urtera 9.084

Zelako abizenak euki ebezan eurak?

Abizenak banaka esaten ibili barik, nik esan neikena au da:

XVI ganen gizaldi erdian, bateatu ziran 859 lagunetik, abizen ezbaridiñak 188 izan ziran.

XVII garrenean, oraingoan urte osoan, 1611 jaiotatik, 240 ziran abizen ezbaridiñak.

XVIII garrenean, 2.371 jaiotatik, 297 abizen ezbaridiñak.

XIX garrenean, 9.084 jaiotzetatik, 445 abizen ezbaridiñak.

Zeatz izan ezarren, abizen bakoitzeko famili bat kontuan eukita, igarri lei zenbat famili bizi ziran be.

Gauzak orrela, nire itauna au da:

Ba dakizue noiz asten diran erdal abizenak Ondarroan?

1561 urtean, jaiotzako agirian au esaten da: XX Maria. Abizena XX. Zegaitik? Ba ez ekielako aitaren barririk. Partidan au esaten da: De un mancebo forastero y Maria Gorocica. Mancebo forastero orrek ez dau esan nai erdalduna izan eikeanik, kanpotarra, au da. Ondarrutik erbestekoa baiño. Eta erbeste ori, Berriatu. Markiña, Mutriku eta abar izan eikeazan.

Ba dago partida bat, "Dios sabe de qué padres", esaten dauana.

Beste batek me lo traje la serora de Motrico, de una señora de Motrico", abizenik ez dator, baiña mutrikuarra ba zan euskalduna izango zan ziurretik.

Beste batek, "por mucho que averigüe no dí con sus padres".

Orreik alboan lagata, ziurra au da:

1627 urtean Oliveros -Sargueras abizendun bat jaioten da.

Beste berrogei urte igaroten dira erdal abizen barik, eta 1667 urtean Fernandez-Velasco abizenduna bateatzen da. Baiña oneik ez eben errian odola barririk sartu, agirian irakurten danez, erriz erri ebiltzan eskaleak zirakako: Pobres bagantes, esaten da.

Beste 29 urte igaroten dira gizaldi onetako irugarren erdalduna agertuarte: Gonzalez Santisso. Oneik Galiziarrek ziran, Lugokoak.

Eta urte berean, Gonzalez Nuñez bat bateatu zan, au portu-galdarren semea.

XVIII garren gizaldian, erdal abizen oneik agertzen dira:

1705 urtean, Fuelles.

1710 urtean, Valle

1746 urtean, Trujillo

1768 urtean, Ruiz de Dulanto. Errioxarra. Abizen au naas-tuta agertzen da aurrerantzean. Batzutan Ruiz de Dulanto eta bestetan Dulanto Ruiz.

1750 n Trizio abizena.

1784 urtean Martinez de Llano, Burgos'ko Villafriatik etorria.

1799 urtean, Perez Palentziarra.

Eta itaun bat egin neike: Girorik ez ete egoan Ondarroan erdeldunentzat?

ara gertaera. 1705 urtean jaio zan Fuelles, Madridarren semea zan, baiña geiagorik ez zan emen jaio.

Valle abizena, Araba'ko Henares'tik etorritako gurasoena zan, baiña au be ibiltarien bat izan zan. Bakarra izan zan.

Trujillo abizenduna, eskaleen umea zan eta emendik joan ziran.

Trizio abizena Cenicero'tik etorritako batena zan, baiña bakarra jaio zan emen eta gero aide.

Martinez de Llano, 1784 jaio zan eta danetara 3 jaio ziran gizaldi orretan, baiña etorri ziran lekura, Villafriara aldatu zan famili ori.

1799'n Perez bat jaioten da, baiña oneik bertan geratu ziran.

1800'tik 1900 bitartean, lenengo berrogeitamar urtetan beintzat, aurreragoko urteetako neurria emon giñei erdal abizenetan.

Beste sei famili etorri ziran lenengo berrogetamar urtetan.

Jimenotarrak etorri ziran Briviesca'tik eta deituta etorri be. Organu jotzaille zan. Eta ez ori bakarrik: Musikalari, sakristau, maisu eta al eban guztia izan zan. 1803 urtean bateatu zan lenengo Jimeno eta gizaldiaren barruan 35 Jimeno bani etorri ziran mundura Ondarroan.

Beste tau urte geroago, beste abizen ugari bat, ugari izango zana agertzen da: Mejias. Ez jakin nondik etorriak. "Se ignora" irakurten da partida baten, gurasoen jatorriari buruz. Edozetara be amasei jaio ziran gizaldiaren barruan.

Beste bat, Salamanca'tik etorritako Talon izan zan. Baiña au bakarra.

Gomez bat san Roque'tik etorri zan. 1841 urtean jaio zan lenena eta geroago bost.

Urte berean jaio zan Ramos bat, Valdepeñas'tik etorria. Oneik bi izan ziran gizaldi gutzian.

Bi izan ziran baita gizaldian jaiotako Ruiz. Ciudad Real'dik etorriak.

Gizaldiaren erditik aurrera ugariago datoz erdal abizenak, baña geienak seme bakarren bat edo bi agertzen dira eta gero kanpora joan. Ba dira orraitio Santander aldetik etorritako "pasiegoak", Abascal, Lavin eta abar, bertan gelditzeko asmoz eta emen geratu ziran eta gaur be euren ogibide jatorra dauke: dendari edo salerosle.

Erdal abizenen agerraldi onetan argi ikusten da famili orreik ez zirala bertara etorri zeregiñen bat betetera baño, eta denbora gitxi egiten ebela emen.

Gure Lege zarrak galtzean, gure Fueroak galtzeak ba dauka ze ikusi erdal abizenak agertzeakin. Karabiñeru eta abar ez ziran euskaldunak erdaldunak baiño. Alaz eta emendik ibili ziranak, geienak emen laga zituen ondorenak eta gure antzera euskera ikasi eben eta gaur ez dabe uste eurak gu aiñako euskaldun eta abertzale ez diranik.

Laburtzeko:

Ondarroan 1900 urte artean zazpireun eta larogei (780) abizen ezbardin batzen ziran, jakiña, lenengo abizenen artean.

Euretatik eun eta amaika erdal abizenak ziran.

Baña oneitatik amasei beintzat bein beiñeko egoera emen euki ebenenak ziran. Bakarrak eta aldendu ziranak. Zeregiñen batera etorri, emen semeren bat jaio, baña pasako usoak lez emen abirik egin ez ebenak.

Beraz 95 lagun inguru izango ziran emen geratzen ziran erdal abizendunak.

|            |           |    |   |
|------------|-----------|----|---|
| Euretatik, | Abascal   | 4, | Santander'tik etorritakoak.   |
|            | Alonso    | 2  | Valladolid'etik etorriak.   |
|            | Alvarez   | 2  | Leon'dik etorriak.  |
|            | Arroquero | 4  | palencia'tik etorriak. Gaur abizen onetakoak ez dabe pentsatzen ondarrutarrak ez diranik. |
|            | Blasco    | 3, | Asturiarrak. Karabiñerua.   |
|            | Brigido   | 7  | Murcia'tik. Oneik be geu lakoxe euskaldunak, gaur beintzat.                               |
|            | Diaz      | 8  | Lugotik etorriak.   |
|            | Gimeno    | 35 | Bribiesca'tik. Au, len esan dodan lez, erritik deituta etorria.                           |
|            | Gonzalo   | 2  | Almazan (Soria)tik etorriak.  |
|            | Martinez  | 16 | Vivero'tik etorria.   |
|            | Otero     | 3  | Lugotik.  |
|            | Perez     | 4  | Palencia'tik.   |
|            | Prieto    | 1  | Zamora'tik.   |
|            | Santos    | 4  | Zamoratik.  |

Euretariko batzuk joan ziran. Geienak gaur bizikeraz era egokitzez eta ezkontzaz eta abar, ez dabe pentsatzen ondarrutarrak ez diranik.

Konturatuko ziñen euneko amabi inguru zirala abizen erdaldunak baña orrek ez dau esan nai eguneko amabi orreitatik erdiak baño geiago euskaldunduta ez ziranik, kontuan eukita gañera aldi aretan ondarrutarrak geienak erderarik ez ekiala.

Sartu gaitzan gure gizaldira.

Txirrist eta laprast, arin arin.

Gizaldiaren lenengo laurden zatian, Ondarru, euskera kontuan, Eleizak erabilten eban.

Parroki bakarra: Bikarioa, beste lau laguntzaille eta organu jotzaille bat.

Danak euskaldunak.

Beste aldetik, bost milla bizilagun eukiarren, mutillentzat eskola bi, neskontzako beste bi, danak lenengo maillakoak.

1906 urte inguruan Gurutzeko Alabak, monjak etorri ziran. Oneik txikitxoentzak euskera itz egiten eben, guri, anditxogoei erdera erakuts> ta euskeraz azaldu.

Estaduko eskolak, len esan dodan lez, ez eben euskerarik erakusten, baiña ez eben indar aundirik be euki erderara biurtzeko. Kontu egin maixu bakoitzak irurogei umetik gora, adin guztietakoak, eukiten ebazala. Ezin asko iralatsi.

Errian industririk ez, arrantzatik kanpora. Bajurako arrantzaleak, eta geien bat neskontzat kontserba eta filetetako lana.

Kanpoko biargiñik ez, lantegirik be ez egoalako.

Arrantzaleak danak euskaldunak.

Karabiñeru batzuk kenduta ez egoan erdal erakunderik.

Karabiñeruarak eurak erriko mariñelekaz eta jokoan egiten eben, kartetan, eta euskera ikastera elduten ziran. Eta euren famili batzuk gerorako be emen geratu ziran, ondorengoen bidez.

Beraz euskera erraz zaintzeko eran ezagutu gendun Ondarroan.

Egia da ikasi be ez gendla egiten, etxeetako berezkotasunetik kanpora. Egia da baita euskal izenik be ez gendula oraindik gure denboretan. Jakiña da eleizako goi agintariak ez ebe-la orreta eskurik emoten, arerio agertu zirala. Gogoratu 1910 urteko pastoralara.

Egia da izenak ez dabela gizonik egiten, baña zerbait erakutsi bai, txapela nundik darabillan ezagutu eragin bai.

1910 urtean, ostopoak ostopo, 4 euskal izen ipini ziran.

1911 urtean, bederatzi.

1912 urtean, amar.

1913 urtean, emeretzi.

1914 urtean, ni be tartean nitzala, amalau.

1917'n ogei ta bost.

1919'n berrogei ta bi.

Or be ikusten da euskal maitasun apur bat.

Eta ori, euskal izena, garai aretan, politikatzat artzen zala. Origaitik Sabin'en izen batzuk, gogor sartu ziralako. Eztakit zegaitik, ziurretik euskeraren sustrairik ezagutzen ez gendulako. Izenak etorri ziranagandik etorri ziralako bakarrik.

Aurrera joan da, 1931 urtean Antiguako Ama errira ekarri zanean, kaleetan jaso ziran ia eun arkuetatik, iru bakarrik agertu ziran erdera utsezkoak. Beste banakak ele bitara. Eta beste guztiak, euskera utsean.

Eta on, euskal izena, garai aretan, politikatzat artzen zala. Origaitik Sabin'en izen batzuk, gogor sartu ziralako. Eztakit zegaitik, ziurretik euskeraren sustrairik ezagutzen ez gendulako. Izenak etorri ziranagandik etorri ziralako bakarrik.

Aurrera joan da, 1931 urtean Antiguako ama errira ekarri zanean, kaleetan jaso ziran ia eun arkuetatik, iru bakarrik agertu ziran erdera utsezkoak. Beste banakak ele bitara. Eta beste guztiak, euskera utsean.

Bardin gertatu zan 1943 urtean, Begoñako Ama erriz erri erabili zanean, nai eta agintarien aginduak aurkako izan, errian ez eben indarrak artzen.

Eta ordurako gerra urteak igarota egozala, eta eskola geia-



---

## EUSKAL ASTEA

---

go, danak erdera erakustzalleak. Baña Ondarruk euskeraren biotzez edo biotz euskaldunez agertu eban bere maitasuna. Latiñez esaten dana: Ex abundantia cordis os loquitur.

Kutsadura, Ondarroan, arrasteko arrantza sartzean asi zan.

Arrasteko arrantza era, gerra aurretxoan sartu zan emen, nai eta urteak aurrez ezagutu Gipuzkoako Pasai eta Bizkaiko Erandion. Len engotan lau txalupa bakarrik. Eta danak ondarrutarrak baiña gerra amaitu ondoren, nai eta Ondarrun bertan egin zan kantauri guztiko batzar baten, Kantauriko portuak arrastaren aurka agertu, arrantzako erabide on indar artzen asi zan. Eta bertako mariñeltzat, arrantzaletzat, txalopetako gizontzat, erbestetik gizonak ekarten asi ziran.

Lenengotan banaka eta galiziarrek ziran, eta orreik Ondarru euskaldunean sartzean, euren artean galegoz egiten eben eta ume eta andrak laster ikasi eben euskera, emengo kale giroan.

Okerra geroago asizan. Galiziarrek euren portuetan be gauzak obetzen asi ziranean, euren lurraldera joaten asi ziran. Eta utsunea beteteko, beste nundik ekarri ez eta andaluziarrak ekarten asi ziran.

Kontuan artu astero etorten zala Almeriatik edo Ayamontetik autobusen bat, lenengotan gizon utsekaz, gero emazte eta umeekaz, et ageroago euren guraso zarrak be ekarten.

Orrela bost sei milla laguneko Ondarroa, bederlatzi millara laster eldu zan, eta geroago, gaur daukaguzan bizi lagunetara.

Ainbeste jende batera etorteak naastu ginduzen. Bikoiztu.

Gogoratzen naz 1976 urteko Urrillaren 3'an, Donostiko El Diario Vasco'n euskerazko artikulu bat idatzi nebala, eta an au esaten neban:

"Ondarroatik Ayamonte'ra edo andik ona ia astero egoten da autobus bat.

Ango gizon eta emakumeak bidean nekatuta etorten dira, maletaz beteta, emengo itxas arrasteroetan gizonak dauken irabazpiderako aukeraren indarrez.

Ba doguz Ondarroan extremeñoak, bai eta andaluziarrak. Ba dira baita be moroak eta portugaldarrak. Babel bat da Ondarroa. Lenago galiziarrek asi ziran, baiña asko euren aiderra biurtu, ango itxas ontzietan bizibidea eukitean. Gero Almeriatik etorritako batzuk ezagutu genduzan. Ille bete orduko itxera iges egiten eben.

Gaur aiamontetarrak doguz lekuko".

Eta gero, neuri Ayamonte berbertan gertatua kontatzen neban:

Bein, ostera baten, Portugaldik Ayamontera urreratu eta an bat baten sartu giñan. Euskaldun itxura artu, eusxkera entzutean, nungoak ete giñan itaundu ta ondarrutarrak entzutean, ango jaubeak esan euskun: "A, Ondarroa. Eze e un pueblo de Ayamonte!".

Alkarri begiratu ta esan gendun: Ordago, txo! Tresnak artu ta guazen arin emendik ara, Ayamendira.

Gaur, arrantzako goraberak garraztu diranean, baretu da ango etorrera bete beteko eta itsua.

Baiña ango asko bertako egin dira. Andrak eta umeak ikasten dabe euskera. Gizonak ez. Gizonak euren munduan ikusi eta ibiltzen dira. Euren aldrean.

Emengoak baiña ume geiago ekarten dabe mundura.

Gaur, beste aldetik, neska mutillen artu emonetan errezagoko alkartzan dira angoak eta emengoak.

Emengoak, euskaldun jarraituarren, irakaskintza, telebista eta gaurko komunikabide ta ibilbideen indarrez, erdera ondo ikasi dogu. Orrek konplexu guztia kendu dausku alkarrekiko.

Ondarroan erraz igarten da, esate baterako, lendik onako alderantzia. Gaur noz nai agertzen da batandik edo besteagandik abizenen nastea.

Alaz eta oraindik euskera parra parra entzuten da gure errian:

Oraindik Eleizak laguntzen dausku euskera zaintzen eta erabiltzen. Ondarrun eleizkizunik geienak euskera utsean egiten dira. Eta arritzeko da, eta adoregarri, zenbat monitore, andrazko nai gizonezko, txandetan, agertzen diran epistola nai irakurgaiak irakurri eta zelako ederto irakurten daben bizkaiera bere zentzu eta aoskatze jatorra emonaz.

Eta umeak be, sortzen diranak, euskaldun sortu nai izaten dira.

Nik, adierazpen lez, azaleko gertaera bat emon neiketue: Aurtengo lenengo amar illabetetan, 54 bateo egin dira Parrokian. Bat bakarria erdal izenekoak.

Eta epaitegian be 52 jaiotza sartu dira agirietan eta lau bakarrik erdal izenekoak, on afrikarren familiko eta abar bertan sartuta.

Ori bai, gaur izenetan be alako iraultza sartu izan edogu. Gaur ez dago lengo Yosuta zerutan-en adiskidetasunik izenentzat. Gaur Ekaitz, Arkaitz, Odei... zeñnek baño gogorrago diardugu.

Alde batetik ni arritu egiten naz, gaur Ondarroan, gaurko giza-bizitzan, zelan zaintzen dan ainbestean euskera. Benetan. Laiñorik igarten ez ete dodan?

Ezin nei ukatu.

Gaur gero ta jaiotza gitxiago dago gurer artekoetan. Erbestetik datozanak ba dakie orretan lanean jarduten.

Len urteko berreundik gorako jaiotzek kopuruak ezagutzen ziran.

1960 urtean 200, 1977'n 249, 1977' 187...

1977'n, esateko, 187 orreitatik 91 euskaldun garbi jaio ziran; 56 erdaldun eta 40 bate bestekoen nastekoak.

Gaur urtean larogeira ez dira elduko jaiotzak. Andik gorakorik ba litz atzamarrak ez litzake faltako zenbatu al izateko.

Erri askotan lez, bertakoak zaartzen guaz eta datozenak... ez gara edo ez dira lengoen antzera. Or ikusten dot, illuntzen ikusi nai ez neuken giroa.

Amaitzeko:

Ondarroa euskalduna, aukeratu eusten gaitzat.

Norbaitek esan leike: Ez al dira erri guztiak euskaldunak?

Zoritzarrez euskaldun izan ziran asko, gaur ez dira euskaldun.

Udal legez, gure Ondarroa, Berriatu izan zan 1365 urte arte. Udal legez, esan dot. Zeatzago izango zan eleizate lez esatea, ordurarte eta gero be Berriatu ala izan zalako, eta orain be dalako.

Jakin bear da 1384 urtean egin zala egutegiaren aldaketa, urteen zenbakien aldaketa, eta lengo urteei 38 urte kendu bear dirala gaurkoekaz ados ipinteko. Beraz nai eta Ondarroaren uri sortzea 1365'n agertu. gaurko egutegira biurtuta 1327 ko Iraillaren ogei ta zortzitik gara erri. Edo uri.

Guri ez euskuen izen barririk emon.



Ezagunak dira inguruko errien deiturak: Monreal de Deba, Debari; Villaviciosa de Markina, Markinña'ri; Villa Mayor de Elgoibar, Elgoibar'eri. Orrelakoak ipinten eutsezan orduko agintariak.

Gure sortzailleak, Marina Diaz Harokoak, ez eban. orretan barrizalekeririk agertu, ez eta bere aginte ezaugarririk be: Fundó la villa de Ondarroa en la puebla de pescadores del mismo nombre, esaten asi zan.

Eta gure mugak be euskal izen garbiko agertu: Amallogana, Arranoate, Isasi, Aretxeederraga, Legarra, Ateguren, Txopite, Atxurra, Mantxoarri, Akilla, Sausaten eta abar.

Beste erri askoren antzera, gurer izenak be ba dauka itzulpena egiterakoan alderantzien bat: Batzuk ondar-ao = boca de arena. Beste batzuk Ondar-arru = barranco de arena.

Itxas aldetik begiratu eta ondar aoa deitu lei. Kontu egin lengo gizaldiaren azkenetan, gaur molla barriak egin arte, itxaso edo urtoki biurtu diran toki asko, len ondartzak zirala Artibai ibaiaren egaletan be.

Beste alde, Ondarru Akillamendi, Santa Kutz, Tontorra-mendi, Goimendi eta abarren tarteko ondartzetan irazia dala jakinda, Ondar-arru deitzen dautsenak be, guzurrik ez diño beintzat.

Edozetara be Ondar ao edo Ondar arru izan leiken erria, euskeran be euskal ao edo euskalduna dalako euskaldun arrua da gaur.

Eta alaxe jarraitu dagiala euskal munduan igarten dogun denborale edo ekaitzen erdian.

### Geigarriak.

#### AGIRREKOA - ATEGUREN

Obeto esanda, Agirrekoa antes llamada Ateguren, esaten da paperetan.

Lekeitio'tik Ondarrurako errepidea, 1875 urtean zabaldu zan.

Ordurarte Lekeitio'tik Ondarrurako bidea Lekeitio, Mendexa, Asterrika, Goimenditik zear Antiguara sartzen zan bidez egiten zan.

Eta or goian, ba egoan erriko Pixua, petxak ordaindu bearreko janariak pixatzeko, gaur Pixape deitzen dan itxas begiratokian, eta ziurretik erriko sarrerako goi aldeko atea be inguru orretan egongo zan.

Origaitik etxe onek Ateguren izena.

ETXEANDIA.— Dirala amar urte inguru arte, etxe onen azterrena galduta egoan, eta aurea Erribera kalera eta goi aldea Kalandira emoten daben etxe bat, konpontzen asi ziranean, ikusi zan arizko egitura guztia kareagaz estalduta eukala, antxiñako leioak be bardindu edo laututa, euren okerrunak kentzearren eta abar. Gaur, eskerrak jendea konturatu zan, leioak eta beste zerbaizuk agirian daukazala ikusi leike.

Paperetan etxe andia dauka izentzat.

Geroago bertako jaubeak izan ziraneik buruzko bertso bat ezaguna da:

Baltzolaneke salan  
lustrie labana,  
txirrist ein da jausi da  
Maximina laztana.

#### GOITINIZ

Torre au orain Unanue Musika Kontserbatorioa dagon

tokian egon zala uste dogu.

Dirudianez emengoa izan zan edo izan eikean Aita Juan Goitiniz.

1484 urteko Bagillaren 23'an, IV garren Sixto Aita Santuak, Bula bat bialdu eutsan Ondarroa eta Mutriku arteko Santa Kutz tokian, Canarias'etarako gertuteko ikastetxe antzerakoa zabaltzeko. Eta ondoren, a il ondoren, VIII ganen Inozentzio lez aukeratu zanak be, lenengo urtean, ziurtatu eutsan Bula ori.

Ango misiolarik frantziskotar fraileak ziran.

### ONDARROA TA ONDARRUTARRAK

Ondarroako itxas baztena danetik da berezia, lepo aldetik mendi garaia eta bertan baseliza: kristau direnak dabilbaz andik Jainkoari erreguka, erri on baten kale bizitza jun dedin, beti, aurrera.

Ondarrutarrak euskaldun dira burutik eta oiñera, adimen osoz ta biotz guriz Euskalerriko erara; euskera dabe euren izkuntza erri on baten senera, mendi ta itxaso ta kalietan abestuz eusko gisara.

PAULIN

### ATZO AMAITU ZIRAN EUSKERAZALEAK'EN BILBAO'KO EUSKAL ASTEAREN BERBALDIK

BILBAO. Augustin Zubikarai idazleak eskeiñi eban berbaldiagaz amaitu zan atzo Euskerazaleak Alkartea'k antolatutako Euskal-Astea, Bilbao'ko Udal-Batzaren dirulaguntzaz gertatua. Ekintzak Eskolapio'tarren Ikastetxean burutu dira aste osoan zear.

Azken mintzaldiak "Ondarroa euskalduna" eukan izenburutzat, eta bertan Augustin Zubikarai jaunak ondo erakutsi eban gaia eta baita bere jaiotenia bere ondo ezagutzen dauala.

Beti legez, Augustin Zubikarai jaunaren itzaldia mamiz eta garrez beterik egon zan.

Euskal-Aste onek beste gai asko bere ikutu dauz. Asteleanean, Legarreta'tar Asier'ek "Abereen mundua"ri buruzko itzaldia emon eban, benetan interesgarria danontzat.

Polita eta erakargarria izan zan baita be martitzenean Itunietar Jose Luis eta Zeberio'tar Mikel'ek emon eben itzaldi-erakusketa bitxia. Itunietar jauna Gabonetako janari bereziak gure artean zelakoak izan ziran erakusten aritu zan.

Zeberio'tar Mikel, bere aldetik, baserrietan egiten dan gaztagintza eta bere antzeko lan batzuren inguruan (esnea eta abar) erakustera etorri zan. Gaztagintzari buruz ainbat jakin-gani ipini ebazan entzuleen begiaurrean.

Eguaztenean, Zubiri'tar Iñaki'k "Euskaldunen eskulagintza" gaia aurkeztu eban, gure arteko enementari, buztargiñ, otzaragiñ, irudigille, ebanista eta abarren ezaguera azalduaz.

Eguenean Olazar'tar Martin'ek Lauaxeta zanaren azken naia eta idazki batzuren inguruko gaia aurkeztu eban. Benetan ikaragania.

Urtero legez, Paulino Solozabalek bere bertsoekaz ornitu dauz itzaldi oneik.

DEIA

# PEDROTXO TERNUA'N

## (2n. SARIA)

Euskalerrri'ko kaiak bale-ontziz beteta daude. Sekulako joan-etorriak baztar guztietan. Zer dan? Saatsa loratu dala eta udaberria ate-joka dagoela. Ez dakizu orrek zer esan nai daben? Bale-arrantzarako ordua jo dabela.

Bermio'n San Pedro itsas-ontziak bere gertuera amaituten.

Kapitanak kareletik legorrekoi maiordomuari:

– Asi barrillok sartzen barrura. Zelakoak dira?

– Berreun ur gezaz eta beste berreun sagardoz, berrogeita amar txakoliñez eta amar pattarrez.

– Jatekoak?

– Ogei txerri-koipez eta urdaiez, larogei baba eta india-  
rrez, zeziñetik beste amar... Sagarrak, mizperak, intxaurrak eta gaztañak beste amarretan.

Kapitanak pillotuari (onek barruan medikutza egiten dau):

– Zer sendagai daramazuz?

– Argizari-olioa poto aundi bat; migura saila eta asu-  
nak odola-meetzeko; axari-buztana ixuriarentzako. Lau izara zaurientzat lokarriak egiteko; ardo-olioa kolpeen-  
tzako. Zauriak erretako pattarra erabilliko dogu.

Kapitanak kontramaixuari:

– Txalupa bakoitzean?

– Iru arpoi, odola ustutzeko iru sangradera, bost soka-  
estatzak, txalopa bakoitzeko bana eta barruan beste bost.

– Eta, Labrador'eko ferirako, zer?

– Bost barril aizkoraz beteta eta beste bost aistoz; guz-  
tiak galtzairuzkoak.

Gurdi bat dakarre ezpata eta lantzaz gañezka; gal<sup>l</sup>-lean, berrogei arkabuz, 18 kañoientzako polbora eta burni-  
bolak; izan ere, "corsoa" dabil itsasoan, laterrien baimene-  
kin dabilzanan; Ingalaterra aldetik, batez be. Zenbat gau-  
za bear dabezan ontzi batek zortzi illabete arrantzan egite-  
ko! Okelea faltako danean, makallaua arrapatu bear, ala  
bale-aragia jan. Arraiñentzako aparejuak beti izaten doguz  
barruan. Argi egiteko argizaria eramaten dogu asieran;  
gero, bale-koipea bezelakorik ez dago. Barrilleruak milla  
barril prestatu dauz San Pedro ontzira. Asko doaz bete-  
ta; baña, ustu alaz, koipez osatuko dira.

\* \* \*

Iru mastako ontzi ederra da. Bi lenengo mastak iru oial  
dabez bakoitzak, laukiak; atzekoa oial luzanga bat. Kara-  
bela da. Galeoia aztunago eta indartsuagoa; baña, euskal  
arrantzaleak maiteago dua ariñagoa dan karabela. Errespe-  
toko oialak ere bear dira; ausi be egiten dira-ta. Berdin txi-  
kotak eta aingurak: biñaka. Arotzak bere lanak, istupatzea  
eta pikia ematea, egiñak dauz; baña, andik onuntz irtetera-  
koan, berriro egingo dau lan on eta orregatik dakarz istu-  
pa eta pikia...

Eguna eldu da. Martxoaren amabosta, aste bat udabe-  
rrirako. Ille bete bearko dabe Bermio'tik Labrador'era eta  
ordurako izotza urtuten doia. Argiña falta zan eta or nun  
datorren presaka kare, ladrillu, tella... Bai, ba; labeak erai-  
ki bear koipea urtutzeko; txabolak jaso legorrekoentzat eta  
koipe-barrillak gordetzeko... Juan Praixku beti azken.  
Begirakun zorrotza bota deutso kapitanak.

– Askatu txikotak eta txalupak uretara.

Bost txalupa, eta sei gizon bakoitzeko arraunian, San  
Pedro itxas-ontzia kaitik atarateko. Zabaldu dituz bere ego  
zuriak, bost txalupak aurretik artun eta, atoian, kanpora  
daramate. An gelditu da tente eta zuri, txalupak jasota,  
aizearen zai. Kapitan au abilla da edozein aize aprobetxa-  
tzeko; baña, zorionekoak, gaur aizea popatik dabil.

Baruko txo pozik dago: -Amalau urte mando bete  
dodaz eta Ternua'ra narama nere aita kapitanak. Neu be  
egunen batean kapitan izango naz.

An gelditu zako ama itxas-ertzean begiak malkoz: -  
Agur, semetxo, izotzetatik zeure burua gorde. Jantzi <sup>oñe</sup>-  
tan artillezko galtrerdi zuriak eta euritarako zirazko kapu-  
saia.

Senarra aldentzearekin oituta dago; baña, orain bere  
lenengo semetxo ederraren berri zortzi illabeteetan ez  
jachieak, larritzen dio biotza. -Bera pozarren dabil; aitare-  
kin joateak arrotzen dio burua eta ez dau ezeren kezkarik;  
baña, neuk neurea daukat korapillaturik eta biotza zulatu-  
rik. Noiz ikusiko ete dabe neure begiok ontzi eder on buel-  
tan etorten!

Ekin deutso aizeak popatik eta tximistak artuta galdu da  
itxaso urdiñean ontzi zuria.

– Agur, agur, agur!

\* \* \*

Bidean Pedrotxo zorutzen, noiz elduko Labrador'eko  
ondartzara... Atlantik-itxaso batetik bestera egin dabe epe  
bakar batean. Cansó'ra eldu dira, San Lorenzo kolko zaba-  
laren ateetara; emen, Ama Birjiña'ri eskerrak ematea da.  
Erri euskaldun guztietako ontziak alkartu dira. Ankak  
luzatzeko, egun bateko atsedena; emendik ondartzara guz-  
tietara zabalduko dira: Ternua. Kanada, Labrador... Guz-  
tiak dagoz irrikatzen bale arrantza noiz asiko. Mugara eldu  
orduko, ikusi dabez bidean; asiera emateko, ordea, lenen-  
go lana ondartzara bat billatzea da. Bertan, piñu-enbor luze  
batean, San Pedro ontziaren ikurrar imiñiko dabe. Ez da  
beste iñor ondartzara orretan sartungo. Kapitanak: -Joan dan  
urteko ondartzara ez zan txarra eta an agertuko gara ikusten.

Aske zegoen oraindik. Legorrekoek txabolak eta labeak

jaso; beste guztiek itxasorako prestatu. Inguru artako indioek ontzia eta legorrekolan ikustean, emen datoz ondartzara. Udaberriak berez dakar poza eta alaitasuna, batez be, onelako elur-tokietan; baña, udaberri oneri euskaldunek ematen deutse berezitasun bat, gauza pozgarri asko ekartzen dabezelako indioekin egiten daberen ferinetara. Negu guziko kastor-larruak datoz indioek; euskaldunek, berriz, galtzairuzko aizkora eta aisto zoragarriak. Auenak arrizkoak dira. Gañera, sagardo-barrillak eta arto zati gozoak. Indioek zorutzen daude eta euskaldunek kastor-larru pilloak sartu dabez barrura. Euskalerrira gauza asko eramaten dira emendik ara: bale-koipa argitarako, bale-bizarrak aistokirtenak eta abanikoak egiteko, kastor-larruak, makail-laua...

Indio taldeko bat euskaldunei laguntzen gelditu da, jatekoen truke. Feria amaituta, ondartzan gelditu dira suaren inguruan; sagardoak mozkortu ditu eta an ibilli dira zarataka gau guztian.

\* \* \*

Egun sentian, argi nabarrean, asi da ontzia zabaleruntz, bale billa. Masta-gañeko otzaran, Pedrotxo dago begi-luze, eta bat-batean ekin dio: -Balea estriborretik! Kapitanak, lemari oratu eta imiñi dau ontzia baleari begira. Aurreratu dira bi milla ingururarte. Aingura bota eta oialak jetxi. Lau txalupak udetara eta lau patroik: kapitana, pillotua, maixua eta kontramaixua, bakoitza bore txalupan. Tsotarteko sei gizon arraunetan eta bbrankan, zutunik, arpoilaria arpoia eskuan eta estatxa ontzi batean; soka arpoietik kabrestanteara doa, an bueltatxu bat emon frenatzeko, eta emendik estatxara. Balea, arpoia soñean dabenean, tiraka asiko da eta kabrestantearen lana auxe da: txikota largatzen danean, kabrestantetik pasa bear dau, eta an pasatzea zaildu; geiegi estutzen ba'da, soka berotu leike eta orduan ura bota, ostuteko.

Txalupok aldan ixillenik doaz baleari lau aizeetatik erasoteko. Kontramaixuen arpoilariak sartun deutso lenengo eta bigarren arpoia baleari. Balea preso dago, baña ez ilda. Sartun da itxas-barrura. Soka larga deutse kabrestantetik zear... Irten dau amasa artzeko eta txalupa darama aidean. Nekatuko da. Orduan asiko da odol-ataratze lana: sangraderak sartu eta atara. Guztien lana izango da. Odol aundiak diranean (gibel edo biotz ingurukoak), arin menperatzen da balea; odol-txikiak diranean, berriz, ez da lan erreza; buztana aizkora bereziz ebaitzeraiño burrukatu bear izaten da orduan. Au odol aundietan ustu da; eldu buztanetik eta ontziari aldamenen lotu, geroago ondartzara eramateko. An izango da leorrekoen egintza, bale osoa koipe biurtu arte...

Ondo baño obeto emon deutse asiera kanpañari. Bateri segi, bestearekin uts egin, orixe izango da oraingo eginbe arra; baña, emengo balea, sardan dabillena da, orregaitik imiñi deutsoe euskaldunek izen au: Sardako Balea...

Barrillak ustu, barrillak bete. Barril guztietan koipea, uraren orde, sagardoaren orde, jakien orde... Etenik gabeko lana. Pedrotxo eta Xeastian, 14 eta 16 urte, alkarrekin lanean: aste bete masta gañeko otzaran, beste bat leorrekoek laguntzen. Zoratzen dabilta, alkarrekin leian...

\* \* \*

Udarako eguzki gordiña moteltzen asita dago. Ipar-aldeko txoriak, kurrilloak eta antzarrak, egoalderuntz doaz mariñelai bidea erakusten... Euskalerriko usaiña andik dator... Laister, udazkena bukatu orduko, etxeruntz, itxasoak izoztu baño leen. Loak artzen dauana, amen gelditzen da izoztuta betirako. Berrogei barril palta zaguz; baña, ez dakit beteko doguzen; kapitana zuurra d eta ez dau nai jendea arriskuan imiñi...

Gaur, ordea, okerren bat gertatu da, Indio talde aundi bat agertu da ondartzako labeen inguruan garraxika eta aizkorak eskuetan dabezela... Eta, ez dabez ba, zortzi gizon euskaldun bertan il...! Pedrotxo, berriz, euskaldunekin alogerazagoen indioek artun eta basoan izkutatu dabe.

Ani-ta-zur gaude guztiok zer pentsa eta zer esan ez dakigula... Kapitanak arkabuzak atara dauz eta bost txalopetan berrogeita amalau gizon joan gara legorrera Pedrotx'ren billa... Ez alperrik! Txabolak erre, labeak bota eta koipeak ustu. Mutillaren aztarnik iñun be ez... Ez dira urrunera joan; zaratak entzuten dira eta emen izango dira berriro laister... Kapitanak ordena eman du ontzira biurtzeko. Emen ez dago ezer egiterik. Berreun baño geiago dira, euren makoak eskuetan dituztela eta aizkorark gerrian... Gorputzak jaso, gero itxasoari emoteko, eta oialak mastan gora. Bagoaz beste ondartzara batera, ontzia istupatu eta pikia emoteko... Kapitanaren begiak ez dabe malkorik; biotza dauka erdibi. Ez dakigu zer zoro-aldi emon deuten, leenago ain lagun genduzen indioei... Barkua istupatu ondoren, Cansó'ra, andik Atlantik'ari saltoa emoteko. Emen jakin dogu, geuri gertutakoa boste euskaldunei be gerta jakela, Labrador'en ebiltzenei.

Zergaitik? galdetzen dau jendeak.

Argitasuna emon dabe: Labrador'eko ifar-aldeetik etxera abiatu diranean, bale-ontzi bateko euskaldunek, bertako indioen buruzagiari eamztea ostu deutse. Sekulan orrelako astakeririk!

\* \* \*

Gertakizun onek emon eutson aisera eun urteko Labrador'eko indioen eta euskaldunen arteko burrukari. Pedrotxo'ren berririk ez zan sekula geiago izan. An bertan esatera au dago: euskaldun bat izan zala eskimalen aita. Agian, Pedrotxo?

Matxikako muturrean ez da jenderik palta etorreraren zai. Goiz batean, berri pozgarria: "An dator San Pedro ontzia". Irten dute emazte eta ama guztiak ongietorria emoteko; baña, ixilik datoz mariñelak. Okerren bat bada. Andre Joxepa'k, kapitanaren emazteak, biotza urduri... Zer gertatu ote da Labrador'eko itxasoetan!

Zer? galdetzen dute emazteki guztiek, zer?

-Zortzi gizon eta Pedrotxo galdu dirala.

Ango negar-sotiñak! Bizirako diranak alkarri lotuta, bakoitza bore etxera. Aurten festaren orde, ilkanpai-otsa. Etxeberri'ren bertsoak, gaur be, egi biurtu:

"Biziarengatik arriskatzen dugu bizia".

---

# MARTIARTUTARRAI

## (Euskal-Gudarortean)

---

Antziñetako aldi gogorak  
oroituz ordu onetan,  
indar barriak sartu nai neukez  
nire anai biotzetan;  
gora ta gora euskal gizonak  
poztu biotz begietan,  
zuen bizia euzkotar legez  
zintzoa da-ta, benetan.

Euzko Aberri zar ta zindoa  
zapaldu eban etsaiak,  
geroztik, beti, kendu nai zitun  
gure bizitza sustraiak;  
euzko semeak, egiz, minduta,  
zaindu nai eskubidiak,  
norbere lurra lortzeko asmoz  
artu zituan bidiak.

Guda orduan elkartu giñan  
Euzkadi'ko mendietan,  
gaztedi ura, zoragarria,  
ez zan bardiñik lurrretan;  
egi egitan, esan bear dot  
aundiak ziñen, benetan,  
ordu ezkeru, zuek oroitzen,  
bizi naz zoramenetan.

Euzko gudari, euskal kristaua,  
or, dago zuen indarra,  
gizontasuna eta fedea  
izan ziran gure garra;  
oinik oin, beti, zaindu zenduen  
geure geurea clan luna,  
euzko odolak indartu eban  
gaurko gure deadarra.

Euzkadi, laster, ikusiko da  
askatasunen bidetan,  
Euskalerrriak bere botoa  
emonik lendabizitan;  
guda odola ez dedin galdu  
zentzun gabeko kezketan,  
Euzkadi'k baitu gizon garbia  
eniaren arduretan.

JESUS CASANOVA JAUNARI

Egun batean eskatu eustan  
bertso berriak jartea,  
Madrilgo seme zan Casanovak  
entzun nairik euskerea;  
bene-benetan apaiz batentzat  
eder zan eskabidea,  
ordu onetan izan bekizu  
poza guri entzutea.

Oraindik gazte ta gogo aundiz  
bizi bait ziñan Areetan,  
Bizkaiak daben toki panpotsa,  
ezin jarri ezpaietan;  
uste-gabeko agurtza orrek  
arritu gaitu benetan,  
gure gogoak opatzen deutsu  
bizi ohea goietan.

Egi egitan, autortzen dogu  
lur onen edertasuna,  
erraietan lez gañean ere  
agertzen dau maitasuna;  
lurraren baltza eder dalarik,  
zer da zerua, or, goian...!  
kristau fedeaz poztu gaitezen  
deunen elkartasunian.

Mesedeetako Eleiz orretan  
sentitzen bakardadia,  
gizon on batek itzi legiken  
utsune samingarria;  
agur Areetan, agur itxas-ertz,  
apaiz ametsen kabia,  
ez dago lurrik, naikoa danik,  
poztutzeko arimia.

Gizon-gogoa armin bizi da,  
beti, itxaropenian,  
ona billatzen, ezin asetuz,  
lurreko ondasunian;  
Egille Bera eskatzen deusku  
gogoak bere bizian,  
bizi gogoa asetutzeko  
Beraren ontasunian.

## EZKONTZEA EUSKAL ERRIAN

Orain dala aste batzuk oiezlako ezkontzea ikusi aal izan dogu Bakion. Antxina baten gure aurretikoek egiten eben erara, danon arridurarako, Bakioko kale nagusian zear, idibuztarri, burdi trikitalari ta guzti ibili izan dira, jaietan oi dan lez, ezkongaiok. An bai, bakiotar askoren jakinmina eta ikusgurea!

Baina au olan izan bada be, zelan egiten ebezan, bada, gure arbasoek ezkontzearen inguruan eginbearreko guztiak? Tokian tokiko ekanduak dirala be, orokorrean iru zati nagusitan azaldu leitekez:

### Ezkontzietan

"Garia saltzen nengoala  
Gernikako kaleetan,  
andra gazte bat etorri jatan  
garia zegan neukean.

Besteentzako amar t'erdian,  
zuretzako ezkontzordean.  
ezkontzordean badaukazu,  
erdu ba ezkonbidean".

Ezkontzea gazte guztien elburua zan, mutilzaar edo neskazaar lotzea lotsagarritzat artzen ebelako edo. sasoi batera eldukeran, bada, zelan edo alan ezkongaiak aurkitu bear izaten eben; mutilak, batez be, aaleginotan ibiltzen zirala.

Onetarako jokabide berezi eta ezbardin asko erabilten ebezan. Neska-mutil lagun geienek domeketako dantzaldietan ezagutzen eben alkar. An asten ebezan euren leengo alkarrizketa eta artuemonak.

Beste batzuetan, solo-bearrak edo etxeko bearrak egite-rakoan. Baserritarrek solo-bearretan alkarrerik laguntzen eutsoela gogoratu bearra dogu. Baina gazteak ez ziran bear-rerako bakarrik joaten. Askoren biotzetan euren elburua eben eta neskak eukezan baserrietara pozaren joaten ziran mutilok.

Artaburuak zuritzeko sasoiak be ardura bardina izaten eben. Artaburu zuriketean basetxeetan ilundean asi eta gaueko beluko orduak artean bearrean ibiltzen ziran. Ostean, etxekoandreak aparia opa izaten eutsen. Ordu oneek gazteen artuemonetarako aukerakoan ziran.

Inoiz, mutilek, gauez, nesken leioetara joateko oiturea eukiten eben. Domeka arrastiko dantzaldia ilundean, zazpiretan inguru, amaitu eta etxera biurtzen ziran danak. Gurasoak lo egozala uste izaten ebenean, mutilek etxetik urten eta an joiazan neskatoen leiopeetara. Lotokiak goialdeetan baegozan, eskuko mailadiak erabilten ebezan bertaraino eltzeko.

Jokabide onetarako, baina, ausarta izan bear izan. Bil-durtiek ez euken zereginik eta. Osterantzean, beste bide

batzuk artu bear izaten ebezan. Esate baterako, txarria ilke-ran, buzkantzak eta odolosteak neskeari bialdu, au berau ezkongaitzarako eskabidea ei zala. Neskeak onartu ezkeru, baietzaren ezaugarria ei zan.

Beste askotan, ostera, gurasoek seme-alaben ezkontzan ardura itzela izaten eben. Gurasoak etxerako seme-alaben arteko bat aukeratu eta besteak ezkontzeko aaleginetan ibiltzen ziran. Onetariko asko ta asko eleizako egiten ziran. Baina, batez be, etxeko oinordekoaren ezkontzea eratu bear izaten eben. Ezkontzarako eukiak edo ondasunak be gogotan artzen ebezan. Semearen edo alabearen ezkontza osteko diru-egoereari asko begiratzen eutsoen eta. Ori zala eta, gurasoak, amak batez be, ezkontza tratu-tan ibiltzen ziran. Sarritan, seme-alabek eurek ezer jakin barik.

Bide guzti oneek erabilita oraindikorren inor ezkon-du barik lotzen bazari, mutilzaar edo neskazaar santutegi-ren batera jotzen eben. Sarrienik, neskek "Madalenetara", mutilek, ostera, "San Antonioetara". An euren eskariak eta baita opariak eta otoitzak be jagokon santuari egiten eut-soezan: baltzarana gura ebanak orrazi baltza izten eutson bitartean, ulegorria gura ebanak orrazi zuria.

Baegozan batzuk, baina, mutilzaarretan edo neskazaar-retan oraindikorren urte batzuk geiago emon guran, santutegiari bearrezkoa zan baino inguruko ibilbide luzea-goia egiten entsoenak. Atzerapena eskatzeko asmotan, jakina! Oba ez!

### Ezteguak

Ezkontzarik geienetan gorasoen (amak) eskuartzea argi-argia zan. Euron artean, amen artean, berbatuten ebe-zan ezkontzarako arrioa, dirua eta eukiak eta.

Ezkontza konponketarako, geien baten, domeketako mezatarako ibilaldia erabilten eben. Amak, goizean goize-rik bazkaria eginda, etxetik urtetzen eben eta meza aurreko zein etxera biurtzeko ordu luzeetan ezkontza konponketan ibiltzen ziran. Bakotxa bere etxera joan orduko, eztabaidak amaitu barik baegozan, aste barruko azoka egunerako izten ebezan.

Beste batzuetan, artuemonak azokan bertan asten ebe-zan. Seme-alaben ezkontzeaz berbetan asi eta konponketa batera eldu be. Konponketa ostean, seme-alabei ezer esan barik, sendien arteko bazkaria egiten eben. Bazkari au, geienetan, neskearen etxean biurtukeran, semeak bere baietza ala ezetza esaten eban.

Maitasun larregirik ez ei zan ona edo bearrezkoa ezkontzeko, aurki!

Ezkontzeko eguna be eltzen zan.

Aurretiaz, geienetan, iru deiera egiten ebezan. Olan egi-ten ebenak asteleenez ezkontzen ziran. Iru deiera egin bakoak, ostera, martizenez.

---

## OITURAK

---

Ezkontza inguruan ekandu aitagarriak izan doguz gure artean, esaterako, "ETXEAN SARTZEA".

Senarraren etxera ezkontzen ziranean, etxera sartzean etxekoandreak emazteari ur bedeinkatua emoten eutson etxeko ateetan. Edo, beste batzuetan, burduntzia eta katilua emoten eutsozan, etxeko agintearen ezaugarri ziralakoan. Etxeko beekosua etxearen ezaugarria zan eta burduntziak su on bere lekuan eukiten dauanez, emazte barriak burduntzia artukeran etxea bera bere agintepean egoala esan gure ei eban. Katilua edo baita burruntzalia be, janaria banatzeko erabiliko eban aurrerantzean emazteak, dana bere agintean egoala erakutsiz.

Neskearenera ezkontzen ziranean, barriz, senar barriari gauza bi emoten eutsozan aitagarribeak, au da, ur bedeinkatua eta akuilu bat. Senarrak leenengoa eskuetan artu ostean, etxera sartu eta kortea ikustera joaten ziran.

Beste aldetik, nonor nonora ezkontzen zanean, etxe orretako ildakoak, aurretikoak, be gogoan izan bear izaten ebazan, etxekotzat artu bear izaten ebazan eta. Ori zala eta, ezkontza ostean, ezkonbarriak ilerrira joaten ziran, ildakoen obietan lorak izten, ain zuzen be. Baina, batez be, ardura on bere eskupean emazte barriak artzen eban. Aurrerantzean be, berak izango eban etxeko ildakoen eta obiaren ardurea eta. Ardura au ezkondu eta urrengo domekan artzen eban. Etxekoandra barriak bere amaginarrebearengandik ogia eta argizaia artzen ebazan. Gero bere gizonaren ildakoen obiaren aurrean gauza biak eskeintzen ebazan, euren aldeko otoitzak be esan eraginez. Eginbear oneri "olatak" esaten jakon eta bein olatak egin ezkerokoan, emazte barria etxearen etxekoandra biurtzen zan. Olan, bere jatorrizko etxeagaz lotura guztiak apurtuta lotzen ziran.

Labur esateko, etxe barriko, sendi barriko gurtze osoaz jaubetzen zan ara ezkontzen zana.

Azkenik, jatordua. Ez egoan ezkontzarik jatordua egin barik. Olan izaten ez bazan, adarra eta txintzarriak joten eutseezan ezkonbarriei. Zergaitik ete zan au, bada? Ezkontzerakoan, ezkongaiak opariak artzen ebezan beti. Oneen orde, jatordua egin bear izaten eban eta.

Jatorduan zear senarraren lagunek diralako "toberak" abesten eutseezan ezkonbarriei. Oneetan ezkonbarrien aide onak eta ezaugarriak gurienak lau aizeetara argiro abesten ebazan.

### Arrioak:

Baina ezkontzako ekanduen artean, arrioak toki berezia bear dau. Orduan, gure aurretikoek garrantzi aundia emoten eutsoen arrioak eroateari. Onetan neskek ardura geiago izaten eban. Arrioa zenbat eta ugariagoa, ezkontza ohea. Mutilak, osterak, ez ziran ainbeste arduratzen. Jantziak, oge-estalkiak, izarak, galtzerdiak, gorua, ispilua, eta abar luzea emaztegaiak eroan hear izaten ebazan eta. Gorua burdiko aurrekaldean danok ikusteko eran, erdian egurrezko kutxea eta ispilua atzekaldean eroezan. Ezkonbarri biziartean, emaztearen bearrerako ardureak, berre andikeriak baino garrantzi aundiagokoa izan bearko ebaladiazote-

ko edo. Senargaiak, barriz, geien baten, lanabesak eroaten ebazan.

Arrio erakusketea oitura berezia zan. Bera erakusteko, egun bat beren-beregi aukeratzen eban. Nonork zenbat eta gauza geiago erakutsi, aberatsago agertzen zan danon aurrean. Onegaitik nesken ardura aundia.

Erakusketa au, batzutan, bigarren deiera ostean egiten zan. Onen ostean, ezkontzea naiko ziurra zan eta neskeak bere lagunei a erakusteko eguna aukeratzen eban. Egund oneri nonon "zato eguna" esan izan jako. Erakutsi ostean ezkontzea zelan eta non izango zan, nortzuk joango ziran eta abarrekoak azaltzen ebazan.

Beste batzuetan, barriz, erakusketa au ezkontza egunean bertan izaten zan. Ezteguetara joaten zan guztiei erakusten eutseen. Arrio ezkongaien ogean zabaltzen zan eta, danak ikusi ostean, baten batek urrengo itaun au egiten eban: "zer falta dogu oge onetan?", eta besteren batek erantzun: "ezkonbarriak!".

Arrioak, baina, batzuetan, ezkondu baino urte bat edo bi leenago asten eban batzen. Beste batzuk, osterak, txiki-txikitatik. Esate baterako, leku batzuetan, neskei txikitatik linua ereiteko lur arloa emoten eutsoen gurasoek. Neskei, goruetan egiten ikasten ebanean, oialak egiten be irakasten eutseen. Olantxe apurka-apurka euren arrioak eratuz joaten ziran. Edo ezkondu edo ezkondu ez, olan egiten eban, neska bakotzak bere arrioak euki bear ei ebalako.

Arrio lorretea ikusgarria izaten zan. Sarritan, neskea mutilaren etxera ezkontzen zan. Orduan, arrioak ara eroan bear. Emaztegaiaren aitak arrioak burdi baten gainean eroan be, jakina. Ez edozelango burdian, baina. Onetarako aarito bat burdiaren aurretik joaten zan. Gainera, ardatzak koipez igurdi bank eukiten ebezan eta an joaten zan burdia kirrinkada otsean. Idiek txintzarri eta margo askotako zerrendez apaindutako bigizteak edo idunekoak eroaten ebazan. Burdi inguruan, baina, gazte taldea dantzaka, santzoka, abestuka eta soinuak joten ibiltzen zan. Soloetan bearrean egozanak bereala konturatzen ziran burdibidetik zer etorren. Aa, bai poza! Areek santzoka joaten baziran, burdia, barriz, kirrinkaka.

Burdi gainean, sukaldeko tresnak, buztarria, oinetakoak, gonak, jantzitako ogea, batzuetan, eta abar. Oneen artean, uts egin barik, jakina, iljantzia. Berau arrio guztietan eroaten eban eta.

Inoiz burdiaren aurretik "aialdekoak" joaten ziran. Aialdekoak emaztegiaren neska lagunak izaten ziran eta arek ezkontzeagaitik artzen ebazan opariak, otzara banatan, euren buruen gainean eroaten ebazan. Onez gain, ezkontza egunean aialdekoek senargaia bere emaztegaiaren etxera laguntzen eban eta bertso batzuk abestuz emaztegaiari aurkezten eutsoen.

### Ezteguondoa

Ezteguak egin eta gero, gaur egun oi dan lez, orduan be, aal izan ebanak egun batzuetarako lur barriak ikustera joaten ziran. Geienetan uri aundietara, au da, Bilbo Bizkaian, Donostiara Gipuzkoan, Iruñera Nafarroan edota Baionara Iparraldean.

Noiz edo noiz be, beste erriren baten euken senitartekoren baten baserrira edo etxera egun batzuk emoten eta, bide batez, areri ango bearretan laguntzen joaten ziran. Ez egotan denporea galtzeko astirik, aurki!

Baina geienak, inora urten ezinik egozala, etxean lotzen ziran euren bizitza barrian zoriontasunaren eske, etorkizunari itxaropen osoz begiratzen eutsoela. Osterantzean...

"Ezkongaietan zeozer banintzan,  
ezkondu eta ezer be ez.  
Ederzalea banintzan here,  
aspertu nintzan ederrez.  
Neure gogoia egin neban ta  
orain bizi naz negarrez".

Bibliografia: EUSKALDUNAK - Orixe. 1935.  
EUSKAL ETNIA - M. Estonba /  
D. An-inda. 1981.  
EUSKALDUNAK - J. Legan-eta. 1980.

Iniaki MARTIARTU  
1995.eko zemendian



*Ezteguak, lauki txikian, arrioa (S. Etxeberria).*

## BERBALAPIKOA

oiezlako = askotan jazoten ez dana; ezoiko.  
aukerakoenak = egokienak; aproposenak.  
mailadiak = eskilarak.  
eleizako = eleizgizon edo eleizandra.  
oinordeko = gurasoengandik etxaldea artzen eban semea edo alabea; etxagun.  
eukiak = ondasunak; aberastasunak.  
gogotan artu = kontutan artu.  
ezkongea = ezkondu barik dagoana, andra zein gizon.  
baltzarana = ule baltzak daukazana.  
ezteguak = ezkontzea eta onen inguruko jaia eta ospakizuna.  
ezkuartzea = parteartzea.  
azoka = merkatu.  
sendi = familia.  
deiera = ezkontza aurreko ezkon deia.  
ekanduak = oiturak.  
burruntzalia = burdinazko katilu txikia edo koilarea.  
obi = ildakoa lurpean sartzeko tokia.  
gurtze = otoitz egite eta beronen inguruko betebearrak.  
guri = jakingarri.  
goru = goruetan egiteko erabilten dan tramankulua.  
lanabesak = soloan edo etxean bear egiteko tresnak.  
beren-beregi = bereziki / gurata; gura izanda.  
oia] = zapi; eun (izarak oialez eginda dagoz).  
lorreta = batetik besterako eroaketea.  
zerrenda = zinta; xingola.  
bigizta = abereei samearen inguruan ipinten jakena; idu-neko.  
ezteguondo = ezkondu ostean ezkonbarriek alkarregaz egoteko emoten daberzan egunak edo aldia; czti-iretargi.

## EUSKERAZAINTZA 'GAZ ERRIOKA' RA

Errioxa maite dogu:

Euskalerrria izana.

Ango donemiliane'n idatzi ziran lenengo esaldiak euskeraz.

Giro ona ta arda gozoa.

Euskerazaintza orrioxa'ra:

Iraillean errioxa'ra txangoa egingo dau euskera-zaintza'k.

Donemiliane goikoa ta bekoa ikertuko doguz.

Gero kañas'eko Iekaide-etxera joango gara.

Senitarteko bazkaria ango jatetxe baten.

Deia:

— Euskerazale guztia, dei egiten jake txango onetara.

— Zeaztasun eta jakingarri geiago "ZER" en urrengo zembakietan.

**Euskerazaintza'ren izenean**



---

# ARGIUNEAK

---

### Artxirrabinoa eta Aita Santua

—Apirillaren asieran irakurri dot DEIA al dizkarian Aita Santua Rabino aundi batekin oso pizik alkartu dala.

Bai, baña ez da oso gustosoa izan askorentzat.

—Orduan, on San Bartolomeren konpiti bezelakoa izan da.

—Zer dira konpittak onek?

—Zegama'ko sakristaua naiko iñozoa ei zan, eta, goiz batean, "matutia" jotzeko elizan sartu zanean, ate aretatik auntzak irten eban kalera, sakristauak ikusi bank.

—Auntza?

—Bai, gau osoan barruan egondakok auntza.

—Eta'?

—San Bartolome'ren aldara gañean auntzen konpittak topa ebazan sakristauak eta joan zan parrokoarengana berri ematera: San Bartolome'k erlikiak laga ebazala aldara gañean eta konbeni zala eliz-kristauen artean banatzea.

—Eta, zer egin eban parrokoak?

—Meza ondoren banatu, bakoitzari bana onela esanaz: "ez dira guztosoa, baña bai animarentzat probetxosoa". Sakristaua eldu zanean, berriz: "San Bartolome'ren relikiak kakatan plost; i sakristau aizelako, lau edo host; eta, agoa bete eutson konpittaz.

—Zer esan nai dau ipuin orrek?

—Alta Santuaren elkarte, be, ez dala izan gustientzat guztosoa eta gozoa, bai animarentzat "probetxosoa"...

—Aizken munduko gerratean doitzarrek (Hitler'ek) ain beste judeo il ebezen, Poloni aldean be bai.

—Bai, alan diño.

—Aietako giza-pare batek, iltzera eroazela ikustean, auzoko famili katoliko baten laga eutsen beuren semetxoa.

—Eta, zer?

—Umetxoaren gurasoak il ziralak jakitean, umetxoa bataiatzea erabaki eban katolikoek eta, orretarako, joan ziran parrokoarengana.

—Eta, zer egin eban parrokoak?

—Gatdetu eutsen, ia bazekiten gurasoen gogoa eta naia. -Baietz. -Zer gogo? -Judeotarren erligioan ezitzeko. -Alan bada, ez dago bataiorik; gurasoak dira ume onen nagusiak.

—Ondo erantzuna.

—Umetxo a Rabino malla aundikora eldu zan eta parrokoa, Aita Santu izatera. Eta, orra biak alkartu pozik zortzen Rabinoa eta Aita Santua.

Arrazoi dezu, au ez da danentzako "gustosoa" izango, baña bai animarentzat "probetxosoa".

### Abraham Olano eta Miguel Indurain

—Biak antzeko dira.

—Bai, alkarren antza ematen dabe.

—Bañan, ez dira berdiñak.

—Ez, Olano da "probinzianua", giputxa.

—Eta Indurain, naparra.

—Olano, Anoeta'koa.

Indurain, Villaba'koa.

—Olano sei urte gazteago: 22-I-1970.

—Indurain zaarrago: 16-VII-1964.

—Olano: 1,81 luze.

—Indurain: 1,88.

—Miguel Indurain aztunago: 79 kilo. Banesto taldea.

—Abraham Olano ariñago: 69 kilo. Mapei taldea.

### Julio Caro Baroja

—Aurten it da Julio Caro Baroja.

—Nungoa zan Julio?

—Madril'en jaioa; beraz, madrildarra.

—Baña, Barojatarrek Izea etxea Bera'n eukian.

—Orregaitik, Madril'en il eta Bera'ra gorpua.

—Lan asko egin al eban?

—Bai euskaldunei buruz eta baita espñoiei buruz be.

—Madrildarra izan ezkerro, ez da arritzeko be.

—Don Jose Miguel'en ikasle bezela agertzen zan; Madril'en, ordea, maiteago eban D. Joxe Miel baño.

—Ataun'goa edo Madril'goa izatea ez da berdin Ebro'tik aruntz bizi direntzako.

—Alaz be, euskaldunen mundua asko aztertu eban eta geure omena merezi dau.

### Kamamilla

—Lorerik apalena, apalik ba'da.

—Urdaillaren miñak kentzen ditu.

—Baita estekoak eta gultzurdiñekoak ere.

—Loa artzeko ez ei da txarra eta kirioak baretzeko.

—Digestiñoa egiteko; alergiak aldatzeko.

—Puztu-aldiak beeratzeko eta abar.

—Ez dira gauza gutxi orrelako loretxu batentzat.

### Galaxia berriak

—Ortizian zear bialdu daben leteskopioak, Hubble deritzanak, 1.500 galaxia berri topa dauz, urrutiko tartetxo batean...

—Nork eman dau berri ori?

—Texas'ko San Antonio Astronomi Elkarteak; joandako Abenduan emandako berriakei dira.

—Ori dok ederra, ori!

—Orain arte jakintsuek jasotako Jakintza-etxetxoa ankaz gora gelditu ei da.

—Jakintsuen jakinduria trastornatzen ei dau Goikoak.

—Salmoak diñoa.

### Joan-etorri bizkorra

Rodrigo jauna dator Errot-berriko lantegira illaren azken astean:

- Buruzagiarekin egon nai dot.
- Zertarako? Diotza idazkari aingerutxoak.
- Kontu bat dakart emen...
- Ez, ba; Paris'en da.
- Baña, etorri naizen ezkeroz, ordaindu nai neuke...
- Ara! Etorrita dago.

### **Euskaltzaindia saltsa guzien perrejilla**

- DEIA'k ekarri eban joan dan urteko Azillaren 25'ean.
- Zer ekarri dau?
  - Renteria erriaren izena orixen dala: Renteria edo Errenteria.
  - Nungo Renteria?
  - Ba. Gipuzkoa'n dagoena, Oivartzun'go ondoan. Aspaldiko tira-bira dago errian; batzuek Orereta nai dute erriaren izena.
  - Eta, Euskaltzaindia'k?
  - Onela dio E.I. jaunak, idatzi dabenak: "En este informe Euskaltzaindia da validez al nombre de Errenteria "es una palabra vasca" y aclara, que, en cualquier caso, no es ella a quien compete decidir el nombre de la villa".
  - Ortan arrazoi dau.
  - "Es una palabra vasca" euskaldunen aoetan dabillelako. "Errenteria" asko daude portuetan eta berba ori "erern-ta"tik dator (erdeazko Renta = gauza batek ematen daben etekiña, probetxoa).
  - Zertarako zeuden portuetan Renteriak?
  - Merkataritzako petxak kobratzen ziran Renteria-etxe-etan. Etxea zan eta ez erria.
  - Eta, Euskaltzaindiak, zer?
  - Euskaltzaindia'k informe bat bialdu zuen Udal-etxera Iraillean bear diran formalidaderik gabe, alkatearekin egon aurretik. Illebeste geroago bialdu dabe berriro Haritschel-har'ek izenpetutal.
  - Zeñek egin du ageri ori?
  - Ez dau iñork esaten: baña, artan dabiltzanak usten dabe Endrike Knór'ek egiña dala... eta politikari begiratu diola, historiara baño geiago.
  - Arazo zaarra al da?
  - Ez da gaurkoa; badu Orereta kalea ere erriak. Ona gai oneri buruz Donato Arrinda'k bere "Fueroa eta Iri-berrien Sortzea" liburuan zer diñon (161-162 orrialdeetan): "Renteria... dokumentu zaar bat danez, alda dezagun itzez-itz onera, Alfonso erregeak, Errenderi sortzeko, eman zuan agiriaren zati bat... Onela dio agiri ortan Alfonso erregeak: "El concejo de Oiarso nos enviaron decir... que por algunas gentes malas de Navarra e de Gascuña como de Guipuzcoa... recibían muy grandes daños... acordaron, si yo bien tuviese de facer población de villa en una de su tierra que dicen Orereta... (etc.)... e que haya nombre de Villa Nueva de Oiarso. E que hayan el fuero de San Sebastián... 5 de abril. Era 1358, Alfonso regnante en Castilla".
  - Zenbat izen!
  - Bi onek agertzen dira: Orereta, berezko lucraren izena, eta Villa Nueva de Diarso. erregeak imiñitakoa. "Renteria", berriz, ekintza baten izena da.
  - Berezko izena. Erregearena. Ekintzarena. Zein da benetako izena?

### **Gabirel Manterola**

- Gabirel Manterol'ak euskeratutako ipuintxo batzuek baditu. Ara emen batzuek:

Galburuak: (Aitak semeari):

"Ara, ene seme,  
etzunda dagon au  
alorta ederrez  
beterik yagok;  
lerden yagon ori,  
arro egon arren,  
aletxo bat barik  
lasto utsa dok".

**Lilia:**

Lili zoragarria neskatoaren pozgarri eta neskatoa il. Aitak amari: Ez egin negarrik; nik aldatu neban lilia, baztar batetik lur ohera, neskatoaren pozgarrirako; bardin gertatu zako geure alabatxoari:

"Ludi galdutik urruti  
gure lili garbia,  
Yaunak berak aldatu dau  
donokien erdira,  
baratz eder ta betiko  
edertasun tokira".

**Azira:**

Nekazari batek errentan eukan Kondearen lurraldeetan, sekulako arbi bat sortu da. Kondeari eraman deutso, ikusi dezan zin ondo eramaten daben zan berer lurak. Iru ontzeko emon deutsoz Kondeak esker onez.

Gerontxio'k, ori ikusita, eraman deutso Kondeari kortan ezi dan txekorrik ederrrena, onela pentsatuaz: Arbi bategaitik iru ontzeko urre emoten ba'dauz, nuri zenbat emongo deust oneako txekor ederragaitik?

Joanda Kondearengana eta onek Gerontxio'ri: -Ara, emen daukot, ezertarako bear ez dodan arbi eder bat eta torizu.

"Biotz zintzoak beti artzen dau  
egiñ onen saria.  
Besteren onaz iñartzirik  
nai ezpogu lotsaria".

**Jose Maria Aldaya aske**

- 341 egun egun asko da zulo batean gorderik egoteko.
- Egoera orretatik burutik ondo irteteko, buruko ordenamentu bat bearrezkoa da.
- Zer ordenamentu?
- Gizon onek badu buruko eta biotzeko ordenamentu ori.
- Zertan antza emoten doutazu?
- Zulotik urten eta bat-batean esandako itzeetan.  
Zer berba?
- Onetxek: Bizitzako burruka egunero-egunero irabazi bear da.
- Ez dagoz txarto.
- Izan be, atzoko eguna pasata dago eta biarkoa etorri barik.

## ALBISTEAK



— Bai, ba: gaurkoa bakarrik daukagu esku artea. Politada.

—Eden-a; benetan ederra. Egunetik egunera zaindu bear egun bakoitza. Gauza asko dauzkagu egiteko; baña, ez atzo eta ez biar; gaur, baizik. Eutsi gaurko egunari eta, egizu gaur, biarko utzi bank, zeure lanik onena. Gaur dozu zeure aukera.

—Ikaskizun ederra emanon dousku Jose Mari'k.

### Pazkoa eta Bataioak

—Pazko bezperan egiten ziran bataioak.

—Orain edozer garaitan.

—Ez, ba; mixiolariak asi dira berriro.

—Zertan?

—Pazko bezperan egiten bataioak.

—Emen be alan bearko litzazke.

— Bai; bataioa fedearen emaitza da.

—Umeak ez du federik.

—Gurasoek fedea dutenean, orduan ematen zaie umeai bataioa, fedearen azia balitz bezela.

—Martxa onetan, laister gurasoek ez dute federik izango Euskalerrian, eta bataio bearrik ez.

— Alan da, tamalez: zenbait euskaldunek uko egin deute Kristo'ri eta bere Elizari. Bide orretatik laister gara ezer bank.

—Baña, Jesusek agindu zion bere Elizari, beti iraungo zuela...

—Ez dau esaten nun. Cartago, Tunez'en, San Agustin'en eliza zan eta bera Eliz orren gotzai. Nun dago Tunez'en kristautasuna? Bere orde, musulmanak eta Mahoma. Eta, Euskalerrian zer?

—Jentil-baratza. Eta jentillak zer ziran? Europatik gure-ra etorritako atzerritarrak. Euren mende egon giñan urteetan zear.

—Eta, lauburua?

—Eurok guregana ekarritako eguzkiaren ikurra. Fedearen elderra galduta gero, milla urteko geure izaera galdu eta zertarako? Zer ziran jentil "eder" oiek? Europa'tik, gu menperatzera, etorritako geure etsaiek. Orra dana eta ezer ez. Utsa.

—Ez fede eta ez itxaropen.

—Ez atzo eta ez biar.

### Tizio'ren emaztea

Oto'k bere aspaldiko lagun Tiño topa dau Donostia'ko Bulebarrean. Aren aldamenean andratxo bat darama: begi-bakarra, errena, buru-soilla pelukakin, iñoren ortzak...

—Amen neure emaztea.

—(Oto'k aopean). Nundik atera dok onelako traste zaa-i7a; Kristalezko begia, egurrezko anka, basakatuen illeak, astoaren ortzak...

—Berba egik altuago, gorra dok-eta.

Zain-audituei (varices) begiratzeko.

Gertu egoteko neurriak, zain-audituek agertu aurrekoak:

— 1/ Aurdunak, bosgarren illabetea ezkeroz, zañetako osagillearengana jo bear dabe, ba'dan ez ba'dan be.

—2/ Gorputzaren pixua neurrikoa izan dedin: Otorduak izan bitez osasungarriak, piper-miñik eta gaitz geiegirik gabekoak.

— 3/ Alkoola eta tabakoa kaltegarri dira.

—4/ Beroak zañak pustutzen ditu; beraz, ez eguzkirik ez urberorik anketan.

—5/ Jantziak jasaia izan bitez, iñungo ligarik bage.

—6/ Oiñetakoak takoi-erdikoak eta orpoan lotura dute-nak.

— 7/ Lotarakoan oiñak biotza baño gorago. Oiaren barrengo ankeri ogei zentimetroko egu-zatia imiñi; buruko edo almoadak ez diraz onak anketan.

—8/ Ez egon luzaro, ordu bete baño geiago, ez zutunik, ez eseririk, zerbait ibilli edo anak jaso bank.

—9/ Itxas-ertzeko ibillerak, oiñak udetan, oso onak dira, kresalak oiñak astintzen ditu-ta.

—10/ Ur otzakin oiñak zipristindu txorkatilletatik gora.

—11/ Igurtzi leunak, anka-punttatan ibilli, etzanda zaudela nakak bizikleta moduan erabilli.

—12/ Deporterik onenak igari egitea, bizikletan ibiltzea eta yoga egitea, dira.

Lenin eta Stalin

Lenin il-zorian dago eta Stalin'eri:

—Ez dakit zuri jarraituko dizuen kamaradek.

—Lasai egon: neri jarraitzen ez ba'didate, zuri jarraiko dizue.

### Asmakizuna

Usoak doaz aidean.

Gabiroiak diñotse:

Usotxu nereak,

zenbat zarete?

Aiek erantzun diotse:

Guregaz eta orrenbeste,

erdiak eta laurden,

ta zuregaz, Gabiroitxu,

egiten doguz eun bete.



00i = 1+6+81+9£+9£ :urlou "UV) 9£ :eunziuuag

1937-1996

☛ **BONBAKETAREN 59. URTEURRENA  
APIRILAK 26**

**GERNIKA - LUMOKO UDALAK**

—Logroño'n nengoen Recajo'tik abioi-tripadunek irten ebenean.

—Norako?

—Bizkai-aldera jo eben.

—Bizkai-aldea ondo jota egoan, bai Durango'n bai Zornotza' n...

—Oraingoan aurrerago ekin eben.

Gernika'ra.

—Ez zan on gauza ain garbia gertatu: Gernika ondoratu zala bai; baña, nork ondoratu eban?

—Franco'k.

—Euskaldun guztiok orixen pentsatu genduen.

—Eta, nork ez?

—Ondorengo goizeko periodiko guztiak, gau eta eguneko irrati guztiak (Sevilla, Salamanca, Gazteiz, Donostia...), ao-batez, berdin-berdin esan eben.

—Zer?

—Agirretxu Txokolateroak eta here gudariak erre ebela Gernika.

—Bañan, on tonto batek be ez eban sinistuko...

—Tonto-iñuzu asko dabil munduan; Salomon'ek dionez, euren kopurua neurribagekoa da.

—Gernika'ko on gezurra zala edonork jakingo eban...

—Amabost egun etenik gabe, ao batez, bat bera esaten aldizkari eta irrati guztiak ari ba'dira, nundik jakin?

—Eta, nork sinistu eban orrelako astakeririk?

—Mundu zabalean asko eta askok sinistu eben eta ziur-ziur sinistu be, orixen nai ebelako.

Baña, munduko irratiren batek esango eban egia...

Bai esaten eben egia; komunistak zirien, ordea, eta beti gezurretan ari ziranak, eta urdiñentzat gezur-utsak zirean.

—Eta, zuek?

—Geuri biotzak esaten euskun egia... Gudariak ez ebela Gernika'rik erre sinismen utsez sinisten genduen, gauza guztien aurka.

—Orren bestez?

—Españi guztia guretzako kartzela baten antzekoa zan eta argirik ez euskun iñork emoten. Gernika'tik neure en-ira emakume bat etorri arte, zalantzan eta illunpeetan. Arrek esan euskun zertzuk gertatu ziran bertan eta nola, egazki astunek erra erre ondoren, egazkin ariñak etorri eta iges dijoan jendeari tiroka.

—Ez da ori egia izango!

—Eta nola bera, ama izanik, here seme alabak kamiñoetako zangan sartun eta here gorputzez estali zituen, balak lurra arrotzen eben bitartean...

—Baña, azkenik egia zabaldu zan.

—Ekaitzaren ondoren beti argintzen du eguzkiak, eta orduan, bebai. Nekez bañan seguru. Gaurko egunez ez da errez ezagutzen zer-nolako biotzeko miñak jaso bear izan genduzen...

—"Bakoitzak berea, Jainkoaren legea".

**Gizon ondradua.**

—Aizu -Oto'k dendariari- gaur goizean amar milla pezetakoa emon deutzut gastuak ordaintzeko eta kobraketan okerra gertatu zatzu.

Orain berandutxo zatoz.

—Zer, ba?

—Goizean etorri bear zenduan; emendik urten eta bereala.

—Baña...

—Amen ez dago bañarik... Orain berandu da.

—Orduan, zer egin?

—Or konpon!

—Or konponekin ez dogu auzirik erabakitzen...

—Or konpon, Mari Anton... Orrelan obeto al dago?

—Ez dozu ezer be jakin nai?

—Ezertxo be ez.

—Ez asarretu, gizona...

—Naiko berba egin dogu. Ate orretatik joaten da kalera!

Oto'k ate-ondotik:

—Banoia, banoia eta eskerrik asko. Emendik esango deusut arazo guztia: zuk bueltak emotean, bost milla pezetak geiago emon deustazu... Eskerrik asko, berriro eta agur.

**Jupiter eta gizakia.**

—Jupiter'ek, Optimo Maximo, here lana bukatu dau, gizona egitean eta zamuka bat (albarda bat) iniñi deutso bizkarretik zintzilik.

—Eta, zer?

—Zamuka orcen aurreko sakean, begien aurrean, or doiaz neure zulentasanak, on-bideak eta birtuteak; eta bestien okerkeri gurtiak.

—Eta, atzeko sakelean?

—An doiaz neure okerkeriak eta besteen zulentasanak eta onbideak. Baba, neuk ikusi ezin.

—Ederto. Jesus'ek esan ebanaren antzekoa da ori.

—Zer esan eban, ba?

—Lasto-ispitxo bat ikusten dozu lagun-urkoen begietan eta zeuk begietan daramazun agea ikusi ezin? Kendu eizu zeure begietako agea eta orduan ikusiko dozu garbi zeure albokoan lastotxua.


—Ederto esana.

**Parolak eta zugaitzak.**

—Aitatxo, zergaitik dira zugaitzak ain luzeak?

—Gure txakurrak, anka jasota, erregariatzen dituelako.

—Orduan badakit zergaitik diran ain luzeak erriko parolak.



## USKERAZALEAK

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.  
48001 BILBAO



## *Betidanik.*

Itzau begiak une batez eta  
begiratu zeure inguruari.  
Eraikiñak, kaleak, aurtzaroan jolasten  
zendueneko lekuak, ikastegia... Ainbat  
eta ainbat gauza ez dira leengoak, ez da?  
Garaiak aldatu egin dira. Ezin ezetz esan.  
Aiekin batera, zuk oraindik atsegin  
dozuzan gauza asko be desagertu egin dira.  
Urbiltasuna, begikotasuna,  
zuzeneko artu-emona... Orain egiozu so  
antziñako sukursal orren argazkiari.  
Eta konparatu BBK'ren egungo edozein  
bulego ta sukursalekin.  
Ez dira ain ezbaridiñak.  
Azkenean, garrantzitsuenak  
bere orretan diraelako.  
Gauza batzuk oiñarrikoak dira eta on  
ondo dakigu BBK'kook.  
Garaietan zear aldatu egin gara. Jakiña.  
Bahia leengo berberak gara.  
Zuri laguntzeko. Eta zure alegiñaz  
eta geureaz onurak itzultzeko.



**BBK**  
**Bilbao Bizkaia Kutxa**  
EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK